

ARGIA



Libe Goñi Garate

SEASKAKO LEHEN ANDEREÑOIA

**«Euskara ikastolak
salbatuko zuela
sinesten genuen»**

2.648 | 2019 / 06 / 16 | 3,90 €



**Langile borrokaz
lortu ziren opor
ordainduak**

20 | EKONOMIA



**"Nikaraguako
feminismoa sandinisten
norabidearekiko
kritikoa da"**

34 | GENI GÓMEZ LÓPEZ



**'Mundutik mundua /
Arabako hitzontzi
baten kronikak'
liburuaz**

44 | EDU ZELAIETA

PAPE NIANG HASIERA BERRI BAT

Mikel Garcia Idiakez

Arraŕi baten niri ku legegaki



 ARGIA



LIBURUA
SALGAI!
14€

EROSI HEMEN: AZOKA.ARGIA.EUS



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIZKI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
ZALDI ERO

Iritziak

- 15 | ENDIKA ALABORT AMUNDARAIN
- 16 | JUNE FERNÁNDEZ
- 17 | INMA ERREA
- 17 | ITXARO BORDA
- 18 | ANA MENDIA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: JULIE WARK
- 54 | BERANDUEGI



GETTY

20 | OPORRAK

Ordaindutako opor egunak izatea langile borroken ondorioz lorturiko eskubidea da. Urko Apaolazak erreportajearen xehetasunez azaldu ditu nondik norakoak.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | LIBE GOÑI GARATE
"Ikastolatik pasatzen diren haurrak euskaldun sentitzen dira"

Miel A. Elustondo

26 | NEGUKO TXIMELETAK
Kobazuloen ilunpeko edertasuna

Iñaki Sanz-Azkue

30 | ANFIBIO ETA NARRASTIAK
Ingurumen aldaketa handien adierazle txikiak

Iñaki Sanz-Azkue

34 | GENI GÓMEZ LÓPEZ
"Gure borrokan sinesten dutenek babesa eskaini beharko ligukete, ez garaile aterako garenaren bermea eskatu"

Amaia Lekunberri Ansola

38 | GURE ZIRKUA
Abenturaren bigarren kapitulua

Onintza Irureta Azkune

44 | EDU ZELAIETA
"Liburuan ez dago txokokeriarik, ezta gorrotatzen dudan kosmopaletismorik ere"

Mikel Asurmendi

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Bego Zuza

Erredakzioa

Amaia Fernández, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estibx Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iñaut Gonzalez de Matauko, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa:

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

lamezta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruñia

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus

harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNDUA)

Jainkoaren ordenaren aurka

Ariel, 18 urteko gazte ez binario argentinarra, ohean, hiru hilabete lehenago egindako mastektomia maskulinizatzailearen orbanak agerian. 2012an genero identitatearen legeari esker egin ahal izan zuen ebakuntza. Munduan ia parekorik ez du, eta agian horregatik zazpi urte hauetan Eliza Katolikoko hainbat artzapezpikuk eskatu diote Mauricio Macri presidente eskuindarrari legea bertan behera uzteko, "naturaren ordenaren eta jainkoaren legearen aurka" egiten duelako. Pederasten sekta horren arabera, gizon baten saihetsak ezarri baitzuen ordena behin betiko.

 GISELA VOLÁ / SUB.COOP

 AXIER LOPEZ







MILAKA GAZTE ELKARTU
GARA ILUNBEN ASKE
IZAN NAHI DUEN HERRI
BATEK BEHARREZKOA
DUEN PRENTSA LIBREA
ALDARRIKATZEKO.
#EXPOLIOGARA GU GUZTIOK
GARA, ETA BATERA EGINGO
DIOGU AURRE

@ernaigazte



NEKATUTA BAINA
INDARTUTA. GAUR JASOTAKO
BABESAREKIN URRUTIRA
GOAZ. MILESKER PRENTSA
ASKATASUNARI BALIOA
EMATEARREN (PUBLIKO,
MUSIKARI, BOLUNTARIO,
KAZETARI...). ZERBAIT
HANDIA EGIN DUGU
INJUSTIZIARI AURRE EGIN
ETA PROIEKTU HANDI BAT
BABESTEKO.

@Ane_Urki



KANTA BATEK EZ
DU ELKARTASUNA
ADIERAZTEN, KANTA
ASKOK ERE EZ, ASKOREN
KANTAK BAI, ORDEA

@Eihera



NIRE LAGUNA EZ ZEN
ILLUNBEN IZAN. PRESO DAGO.
BERA BEZALA BESTE 252.
KONTADORE HORI ZERON
JARRI ARTE EUSKAL HERRIAN
BETI EGONGO DA EGUNKARI
BAT KARTZELARA SARTU
ETA GURE KONTATZEKO ERA
BILDUKO DUENA

@gara_isoto



Skolae programan parte hartzeagatik deklaratzera

EUSKALERRIA IRRATIA

Nafarroako Gobernuako jarduneko eledun eta hezkuntza kontsailari Maria Solanak joan den astean jakitera eman zuenez, 2017-2020 hezikidetza plana idatzi zuten bost pertsona eta beste bost tutore deklaratzera deitu dituzte. Programaren aurkako hiru demanda daude aurkezturik Nafarroako Auzitegi Nagusian. M18 elkarteak, Concapa eta guraso talde batek aurkeztutakoak dira. Ekainaren 14rako deitu ditu epaileak deklaratzera.

“Beste behin salatu nahi dugu Skolaeren inguruan lanean dauden irakasle eta profesionalak jasan behar duten sorgin ehiza”. Gobernu berriarekin Skolae kolokan ote dagoen galdetu diote eledunari. Hezkuntza “politikatik at” mantentzeko beharra azpimarratu du: “Gobernu aldaketan gainetik egon beharko luke”.

Aldatu ezin diren aurrerapausoak eman direla ere gaineratu du: “Hezikidetzan atzera bueltarik ez duen une batean gaude. Gertatzen dena gertatzen dela, 2.200 pertsona berdintasunean trebatu ditugu”. Parlamentuaren gehiengoa “Skolaeren aldekoa” dela oroitarazi du, eta gehiengo horren aurka egitea “zaila” izanen dela sinetsita dago.

Nafarroako ikastetxeetan hezikidetza bermatzeko plana da *Skolae, berdin bidean*, maila guztietan “bazterkeriarik gabeko errealitatea” sustatu nahi duena: berdintasun ezarekiko ikuspegi kritikoa, hezkuntza afektibo-sexuala, autonomiaren lanketa, ahalduntzea, elkarbizitza... UPN, PP, Ciudadanos eta Vox alderdiak kontra izan ditu hasieratik.

Fargo (3. denboraldia)



SANTI LEONÉ

Nafarroaz mintzatu behar dut gaurkoan. Ez dakit, beraz, zutabe hau irakurtzen segitu nahi duzuen: batetik, ez delako kalaka horrekin heldu naizen lehen aldia eta, bertzetik –bigarren hau inportanteagoa da–, nafarra naizelako, nafar anormala, baina nafarra, eta aspaldi honetan aski argi gelditu da Nafarroaz nornahik dakiela gehiago nafarrek baino. Barkatu, beraz, nire auserkeria.

Ortzilarean, Nafarroan gehien saltzen den egunkariak titular hau zekarren: “Pedro Sánchezek iragarri du inbestidura Navarra Sumarekin negoziatuko duela”; hainbertze saltzen ez duen egunkariak, berriz, bertze hau: “Pedro Sánchezek babestu egin du Chivitek gobernatzeko asmoa, eta Nafarroako aferatik bereizi du Navarra Sumaren abstentzioa”. Ongi aztertuta, erraten dituzten gauzak ez dira elkarren baztergarri, ikuspuntu kontua da; atera nahi duten ondorioa, ordea, bai.

Lehen eta bigarren denboraldia ikusi ondotik hobera egiten ahal ez zuela uste banuen ere, ustekabean harrapatu nau *Fargo* telesailaren hirugarren denboraldiak. Narrazioaren gainetik –edo azpitik, ez dakit–, istorioak ditu mintzagai: istorioak kontatzeko manierak, bertsioak, ikuspuntuak. “Iragana ezin da asmatu, etengabe ari da aldatzen”, erran dio pertsonaia gaizto nagusiak aitzinean duen poliziari; “etorkizunean zer gertatuko den da ziurtasunez dakigun gauza bakarra”. Inork ez daki zer bozkatu zuten nafarrek; anitz ez dira oroitzen zer egin duen PSNk hauteskundeak izan diren aldiro. Badakigu, ordea, zer gertatuko den: Nafarroa defendatzen dutenek onartuko dute Nafarroako gobernu kanpoan erabakitzea, kanpoko interesen arabera.

Bertze hauteskundeetan zer egin duten ikusita, PSNk oraindik makurrago jokatzeko ezinezkoa iduri duelarik, beti aurkitzen dute bidea. Ezin erran, baina, ustekabean harrapatzen gaituenik. ●



ADUR

“IRABAZI DUGU, ETA DENOK HARTUKO DUGU ARNASA LASAI”

HAMILTONGO ERRAUSTEGIAREN KONTRAKO KANPAINAREN BULTZATZAILEAK

Eskoziako Hamilton hirian egitekoa ziren erraustegia atzera bota dute. Bi proiektu zituen aurreikusita enpresak, bata askoz handiagoa –90 metro garaierako tximiniarekin–, baina bata zein bestea bota dituzte atzera. Bertako herritarrek kanpaina luzean aritu dira erraustegiaren kontra eta garaipena ospatu dute: “Kanpaina luzea izan da, gure lehenengo bilera 2013ko ekainean egin genuen eta jende asko eskertu behar dugu, gehiegi banan-banan izendatzeko, baina zuk badakizu zutaz ere ari garela”.

DAILY RECORD (2019/06/06)



Eskubide gabe lan egin



JUAN MARI ARREGI

LAN arloan, ari gara iristen puntu batera non enplegu bat lortu nahi dutenek langile gisa dituzten eskubideei uko egin behar dieten. Gogora etortzen zaizkigu langileak herri eta hirietako plazetan edozein prezio eta baldintzatan kontratatzen zituzten garaiak. Espainiako Estatuko "Trantsizio" deituriko horretan hainbat oinarritzko eskubide konkistatu ziren: lan harremanen legea, grebarako eskubidea, aurrerapen zibil, sozial eta laboralak –opor egunak tarteko, zenbaki honetako erreportajeaz azaldu bezala–, eta azkenik, Langileen Estatutua 1980an, jadanik zaharkituta dagoena. Ondoren, Kapitalaren zerbitzura zeuden lan erreformekin, egoera murrizten joan zen eta aurrerapen horiek erabat mugatuta geratu dira. Berrikuntza teknologikoen, herritarren kontra ezartzen direnean –riders edo trade delakoak kasu–, lan harremanen hondamena sakondu besterik ez dute egiten.

Duela gutxi Bartzelonan hil da Pujam Koirala, ibilgailu batek harrapatuta. Glovo banaketa enpresak azpi-alokatutako lana egiten ari zen bizikletan. Badi-rudi langile hark ez zuela eskubiderik. Ez al zuen? Zein egingo da orain bere heriotzaren kargu? Hain justu, oraintxe hasi da Espainiako Estatuan gehiegikeriaz jokatzeko duten plataforma digitalen kontrako makro-epaiketa –Glovo eta antzeko enpresak haien bidez elikatzen dira– eta 532 banatzaileari eragiten die.

Halakoxe basatia da inguruan daukagun kapitalismoa, batzuek apur bat edulkoratzeko *liberalismo* deitzen dioten arren. Baina ez. Kapitalismoren bertsio krudelenaren aurrean gaude eta XIX. mendera itzularazten gaitu. Beste lan erreforma bat behar da koiuntura honi aurre egiteko. Ez badugu fronte solidario antikapitalista bat osatzen, egunero eskubiderik gabeko langile gehiago egongo da, eta oihaneko legeak jarraituko du! ●



WOODY ALLEN DONOSTIAN 2008AN, 'VICKY CRISTINA BARCELONA' AURKEZTU ZUENEAN. ATZEAN, BIZKARREZ, JAUME ROURES.

ANDREASTAI

Pelikula hau ikusita daukagu

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

ZAZPI urteko haur batez abusatu izana leporatu diotelako AEBetan finantzazio arazoak edukitzen ari den zine zuzendariak bat egin du modu nahiko opakuan talde mediatiko handi bateko buru izatera iritsi den ekoizle kataluniarrekin, iberiar penintsulako kostaldeko hiri txiki batean pelikula bat grabatzeko: Woody Allen, Jaume Roures eta Donostia. Ez dauka atzera bueltarik, uztail honetan New Yorkeko zuzendaria Gipuzkoako hiriburura iritsiko da.

Karl Marxek zioena errepikatuko ote den ikusteko dago, alegia, historiako gertakari garrantzitsuak errepikatu egiten direla, lehenbizikoan tragedia gisa eta bigarrenean fartsa gisa. Donostian errodatzekoak diren filmaren operazioak lehengo ikusitako zerbaiten tankera badauka behintzat: joan den hamarkadako *Vicky Cristina Barcelona* tituludun tragedia zinematografikoaren osagaiak berriz frijituta daukagu platerean. Zuzendari bera, ekoizle bera eta beraien hiria turismo globalaren eskaparatean jartzeko anbizio bera duten agintari eta *lobby*ak.

2008ko pelikula hartan Scarlett Johanssonek, Penélope Cruzek eta Javier Bardemek spot publizitario bat egin zuten Bartzelona hiri-markarentzat, hango kaleak, bizi-estiloa, arte-mundua eta "gizon latinoak emakume anglosaxoiak seduzitzen ditu" topikoa nahasiz umore txorrotada batekin. Formula kitzikagarria turistak hegazkin-billeteak erostera animatzeko: bisita ezazu Cristina Juan Antoniorekin maitemindu zen hiria, erromantze latinorik bizitzen ez baduzu ere, ondo pasako duzu mediterranean alai eta ero samarrekin.

1992ko Joko Olinpikoekin hasitako espekulazio-zikloa borobilduta geratu zen. Georotik hiriko biztanle askoren artean sentsazio bat nagusitu da: beraiena zen zerbait kendu dietela. Marina Garcés filosofoak *Ciutat Princesa* liburuan esplikatzeko duen moduan, industria estraktibista gisa ulertu behar da eredu turistiko hori, guztiona dena –kaleak, plazak, auzoak– enpresa pribatuek nahieran esplotatzeko lehengai bihurtzen dituelako. Tragedia bat, Donostian fartsa gisa errepika daitekeena.


Urteotan gauza batzuk aldatu direla pentsatuz kontsolatzea geratzen da: #MeToo kanpainak zerbait astindu du zinema munduan eta akaso Donostiaren agerpen global handi hau ilundu dezake abusuengatik salatutako zuzendari bat beso zabalik hartzeak. ●



@ARTISANS_PAIX

MILAKA ESKU, BAKEAREN ETA PRESOEN ALDE

BIARRITZ. Bake Bideak eta Bakegileak ekimenek deituta, giza kate jendetsua egin da Biarritzen. Frantziako Estatuari pauso berriak eskatu dizkiete konponbidearen arloan oro har, eta presoan auzian bereziki. 3.000 lagun batu dira, *Bakea Euskal Herrian: Orain presoak!* lelopean. Presoen gaiak adostasun zabala lortu du Ipar Euskal Herrian. Salbuespeneko neurriak bertan behera uztea, hurbiltzeak azkeneraino eramatea eta baldintzapeko askatasunak ematen hastea exijitu dute bertaratuek.



ETXEBIZITZA ESKUBIDEA

1.047,7

euro da alokairuaren batez besteko prezioa EAEn: errekor historikoa. 2013tik %26,9 egin du gora alokairuaren prezioak.

1.257,2 eurokoa da alokairuaren batez bestekoa Gipuzkoan. Gipuzkoa da EAEko hiru lurraldeetan egoera okerrean dagoena, alde handiaz.

Ikastetxeen finantzazioa, Legebiltzarrerera

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

ARGIAren *Irregularitasunak Lanbide Heziketaren finantzazioan?* erreportajea hizpide, Eusko Legebiltzarrean azalpenak eman behar izan dituzte Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak eta Jorge Arévalo Lanbide Heziketako buruak, Rebeka Ubera EH Bilduko legebiltzarkideak eskatuta. Irakasleak enpresei zerbitzuak eskaintzen jartzen dituen programaz aritu dira, luze eta zabal.

EZAGUTZA?

Zerbitzuak eta lanak eskaini eta horiek burutzeagatik kobratu egiten diete irakasleek enpresei (%25eko beherapena eginez). Arévaloren esanetan, zerbitzuak eskaintzea ez da soilik enpresak laguntzea, irakasleek ezagutza lortzea ere bada, gero ezagutza hori ikasgelan transmititzeko. Uberak programako adibide erreal batekin erantzun dio: “Enpresa batek akordioa sinatzen badu ikastetxearekin irakasleak webgunea diseinatu diezaion, hortik zein gaitasun eta jakintza berri lortu ditu irakasleak gero ikastetxean transmititzeko?”.

LEHIA DESLEIALA?

“Eta enpresa bati webgunea diseinatzeko ez al da lehia desleiala, webgunea diseinatu dezaketen inguruko enpresentzat?”, gehitu du Uberak. “Ez dugu kompetentzia desleialik egiten eta berrikuntza aplikatua eskaintzen duten enpresak baldin badaude, erretiratu egingo gara”, adierazi du Arévalok.



JOKOA. Dozena bat eragilek joko-aretoen aurkako epaiketa sinbolikoa burutu dute Gasteizen eta manifestazioa deitu dute ekainaren 23rako. 8.000 biztanleko joko-areto bat dago Gasteizen; auzo bakoitzeko, bi joko-areto. Iruñeko Sanduzelai auzoan ere joko-aretoen aurkako dinamika abiatu dute.



SEASKA. 5.000 bat lagun bildu dira Biarritzen, Frantziako Gobernuari Seaskarentzat irakasle gehiago eskatzeko. Datorren ikasturterako 30 irakasle gehiago behar dituztela adierazi dute, baina Frantziako Hezkuntza Ministerioak bost langile bakarrik kontratatu nahi ditu.



EKONOMIA SOZIALA. Koop57 irabazi asmorik gabeko kooperatibak eta Udalbiltzak lankidetzat hitzarmena sinatu dute, hiru ardatzetan oinarrituta: Euskal Herriko lurralde desorekak arintzea, ekonomia soziala eta tokiko garapena sustatzea eta Euskal Herriaren kohesioan laguntzea.

Libe Goñi Garate

SEASKAKO LEHEN ANDEREÑOIA



“IKASTOLATIK PASATZEN DIREN HAURRAK EUSKALDUN SENTITZEN DIRA”



50 urte betetzen ari da aurten Seaska, Ipar Euskal Herriko ikastolen federazioa. Duela 50 urte, ama bat, Argitxu Noblia, eta behar zen garaian behar zen lekuan gertatu zen irakasle bat, Libe Goñi, elkartu zituen zoriak. Lehen ikastolaren hazia erein zuten, oraingo mugimendua abiarazi.

 MIEL A. ELUSTONDO
 ZALDI ERO

Oteizan sortua zaitugu, Nafarroan.

Lizarra ondoan.

Aitaren sorterrira etorri zelakoz ama [Zarautzen jaioa], Oteizara, ni sortzeko. Gero, berriz Zaragozara joan ginen. Haurdun gelditu zen berriz ama. Aitak mutikoa nahi zuen, eta amak nahi zion eman. Eta egin zuen bosgarren haurra: mutikoa. Ondotik, nik hiru urte nuelarik, gerlako kastigua pasatu zenean, eman zioten amari Gipuzkoan herri bat hautatzeko zenbait aukera. Haietako bat, Lazkao. Eta huraxe hautatu zuen. Ahizpa zaharrenak 7 urte, nik 3, urtebete zuen anaiak. Eta Lazkaon izan zen irakasle eskolan. Baina lau eta erdietan, eskola bukatzen zelarik, hartzen zituen haur batzuk, lau-bost, eta erakusten zien euskaraz irakurtzen eta idazten, eta kantu batzuk.

Lazkaon hazi zinen.

Bai. Han egin nuen lehenbiziko eskola. 10 urterekilan, Ordiziara joan nintzen kolegiara, eta 14 urtetan, Montpellier mojetara, Donostiara, barnetegira. Gure amak erraten zuen emazte guztiek behar zutela lanbide bat ukan, ez ginela izaten ahal beha gizonak noiz emango zigun dirua. Behar genuela gure askatasuna. Gure herrian, Lazkaon, nire adinekoetan ni bakarra izan nintzen ikasketak egiten. Amak bazituen –garai hartan, kasu!– ideiak. Donostian, Montpellierraren nintzela, andereñoak prestatzeko erresidentzia egin zuten. Han ziren Pakita Arregi eta. Haiekilan izan nintzen. Lehenetakoa. Gero, urtebete egin nuen Karmele Esnalekin. Elbira Zipitria ere ezagutu nuen, bistan

da! Eta Tolaretxipi, eta Alemandarrak... Beste bat bazen, bitxiak saltzen zituena Donostian, Elbira Zipitriaren oso-oso laguna.

Urtebete egin zenuen Karmele Esnalen ondoan. Andereño hura bazen nor.

Asko zor diot nik Karmeleri. Bazituen kasik ehun bat haur lurtean. Ez zen mahairik, dena magalean egiten zuten. Dena ikusiz egiten zuen, bizian, matematika eta denak. Batekoak eta hamarrekoak, eta hostoak nondik eta nora, eta landare bati hostoa kentzen badiogu, bizi pixka bat kendu diogula... Gauza horiek denak Elbirari eta Karmeleri zor dizkiet. Badut gordea Karmelerekin landutako kaier bat, dena kantuz bete.



Libe Goñi Garate

1947, OTEIZA



Zarautzen jaioa ama, Miren, irakaslea zen Orbaizetan 1936ko gerra aurretik, zigortua gerra garaian, Zaragozako (Espainia) Villabella herrira erbesteratua, harik eta 1950ean Lazkaon destinoa hartu ahal izan zuen arte. Lizarra ondoko Oteizakoa aita, ez zekien euskaraz. Hala ere, euskaraz hitz egin zien beti amak seme-alabei. Amaren urratsei jarraiki, irakasle ikasketak egin zituen Libek, eta Karmele Esnal eta Elbira Zipitriarekin trebatu zen. 1969an heldu zen ihesean Ipar Euskal Herrira eta Seaska ikastoletako lehen andereñoa izan zen. 2007an hartu zuen erretreta, Reiki irakasle da oraingo egunean Baionan.

JEL IZENA

“Maria Libe dut izena, baina Maria kenarazi nuen hemen. Orduan behartuak ziren Maria ipintzera. Ahizpa, Idurre nuen, baina hari ere Maria ipini zioten aitzinean. Amak Dei ezarri nahi zion anaiari, baina Zaragozan ez zuten onartu. ‘¡Póngale el nombre que le dé la gana!’ erran omen zion amak. Azkenean, aitaren izena eman zioten: Daniel. Aitonak ere, aitaren aitak, seme-alabak izan zituen Maria Arantzazu (Miren), Maria Francesca (baina Pantxeska), Edurne, Itziar, Jon... eta Jel Imanol. Jaungoikoa eta Lege Zaharra Imanol!”

REIKI

“2002an Reiki giroan sartu nintzen, energia mundu horretan. Sinesmen anitz nituen buruan sartuak: jainkoa, infernua, bekatua... Budismoa ezagutu dut, eta baztertu nituen horiek denak. Orain gehiago maite ditut eguzkia eta natura. Horiek bai, egiazkoak dira. Lau ikasmila egin nituen, eta Reiki irakaslea naiz. Uste nuen ikastolako irakasle guztiak etorriko zirela hona, haurren tripako minak-eta kentzeko, baina ez, ez dira etorri. Kar, kar... Reikia bikaina da haurren tripako mina kentzeko”.



Eta, horren ondotik, noiz hasi zinen irakasle lanean?

14 urtetan orduko eskola bukatu, batxilergo eta errebalida gero... 18-19 urtetan, lanean nintzen, baina ez eskola nazionalean. Ez nuen harako oposiziorik egin. Herriarendako zerbait egin behar genuela amesten genuen. Euskal Herriarendako, garbi erran dezadan. Sinesten genuen ere, euskara ikastolak salbatuko zuela. Oso barneratua nuen nik hori. Aita ez zen pozik, lan

asko egin baitzuen niri ikasketak ordaintzeko Donostian. Aitak eskola nazionalean lan egiteak zituen abantaila guztiak nahi zituen niretzat. Aita, haserre, sua botatzen. Ama, pozik. Etxetik igorria izan nintzen. Ez zen goxoa izan. Baina nire gogoia zen herriarendako zerbait egitea, euskararendako. Irakasle ikasketak egin eta, urte batez praktikak egin nituen Karmele Esnalekin 1963-64an. Handik, Andoaingo ikastolara joan nintzen lanera. Bi urte

'DANTZARIA'

"Dantzaria naiz! Ibili izan naiz Baionan, Arrangoitzen, Miarritzen, Angelun... Pentsatzen dut hamar urtez toki batean egonda, aski dela. Hamar urtez toki berean, aspertua nintzen. Aldatu behar da mundu honetan. Aldatzen zara etxez, edo gizonez, edo tokiz. Kar, kar... Ez da posible berdin egotea 40 urtez. Aldatu behar da bizia".

AMA

"Politikaren gainean, adibidez, oso ikuspegi zabala zuen. Biziki feminista zen. Amak erraten zuen gerlaren ondoko aferengatik ezkondu zela. Egun batez, artikulu bat azaldu zen orduko *El Diario Vasco*-n, erranez nolako ama zen bere haurrak abandonatzen ahal zituen emakumea. Gure amak izugarritzko artikulu gogorra egin zuen kontra, erranez haur abandonatuen aitak nortzuk ziren segur jakiten ahal zela, eta sekula ez zela

erraten aitek zenbat haur abandonatu dituzten. Beste batean, beste artikulu bat irakurri zuelarik '*Despiertate mujer!*' (Iratzar, emakumea!) zioena, erantzun zuen: 'Nork iratzartu behar du mundu honetan? Emazteak, ala gizonak? Alargun bat biziki ongi arduratuko da bere haurrez. Gizon bat gelditzen bada haurrekin, 'Gaixoa gizona!' erranen dute. Nehork ez du erranen 'Gaixoa ama!'. Nork iratzartu behar du mundu honetan?'. Oso pentsamendu ezezkoa zuen gizonekiko".

Azken hitza: ERRETRETA

"2001ean Angeluko ikastolara joan nintzen lanera. Ikastola txipia zen, baina joan nintzenean jende pila etorri zen. 2007an erretreta hartu nuelarik, omenaldia jaso nuen Angeluko ikastolan. Biziki festa ederra egin zidaten, hainbesteraino, bidaia bat ordaindu zidaten Balira. Guraso batzuk hara joatekoak ziren, eta haiekin joan nintzen. Biziki ongi bukatu da garai hori".

Andoainen, eta unibertsitatera joan nahi izan nuen, gehiago ikastera. Nahi nuen ikasi haurraren marrazkiaren gainean, marrazkiaren bidez haurra hobeki ezagutzeko. Ohartu nintzen Karmele Esnalek asko begiratzen ziela haurren marrazkiei. Garai hartan bazen Albi-su bat kartzelan, ETako lehenetakoa, eta haren haurrak beti marrazten zuen etxea, eta leihoa barra batzuekila. Berak horrela ikusten zuen aita. Karmelek oharrarazi zidan horretaz. Marrazkiari buruz eta ezagutza pedagogikoaz-eta biziki azkarrak ziren katalanak, eta oroitzen naiz bi udaz Loiolan (Azpeitia) izan nintzela haiekila ikastaroan.

Zer giro zen Lazkaon garai hartan, 60ko hamarkadaren hasiera edo erdialde hartan?

1964-65ean, apaiz gazte bat etorri zen Lazkaora: Hiazinto [Fernandorena] Setien. Bazen Imanol bat ere, apez. Eguberri, jaiotza ateratzen genuen, bizirik, eta kantuak kantatzen genituen. Urte batez, txabola zahar batean gizon bat ipini genuen. Eta gure amak: "Olentzero...! Eta ez ditun etorri!". [Guardia zibilak-edo] Ama, beldurrez. Herrian, gure amaren adineko jendea, beldurrez, eta pozik. Biak. Ez dut sekula ahantziko hori, Olentzero Lazkaora itzuli zen irudia. Olentzero egiten baitzuten han gerla baino lehenago. Hura izan zen gerla ondotik atera zuten lehenbiziko aldia.

Hiazinto etorri zenean izan zen. Hurrengo urtean, hiru Olentzero atera ziren, zein bere auzotik, eta plazara bildu ziren. Eta poliki-poliki Olentzero indarra hartzen joan zen.

Unibertsitatera nahi zenuen.

Ideia horrekila joan nintzen Iruñera. Goizean ikastolako lana egiten nuen, eta arratsaldean unibertsitatean nintzen. Baina bi gauzak batera egitea gehiegi zela pentsatu nuen. Ez nintzen gai. Horretan, egun batean, otsailean, hor etorri zen ama, erranez guardia zibilak etorri zirela Lazkaoko etxera, eta alde egin behar nuela. Garai hartan torturatzen hasiak ziren anitz jende.

Tortura garaia zen. Francoren garaia. 1969. Lazkaon apez zegoen Imanolek gure ama autoan sartu eta Iruñera ekarri zuen. Iruñean bizi nintzen tokira ere etorri ziren poliziak, baina bi gaztek gordea ninduten. Etxe batean ukan ninduten bi egun. Eta, ondoren, Luzaidetik barrena ekarri ninduten hona.

Hona heldu zinen, Ipar Euskal Herri. Eta hemen?

Paperak behar nituen hemen egoteko, iragaitzazko bidaiari paperak. Horitako, behar nuen Parisera joan, pasaportea erakutsi -beti ukan bainuen

pasaportea, ttipitak-, eta ikasketak banituela ere erakutsi. Joan nintzen, papera ukan nuen, eta itzuli nintzen Donibanera, maletak hartu eta Parisera joateko, han familia bainuen, amaren hiru ahizpa eta ania bat, Zarautzik Parisera lan egitera joanak. Nik ez nekien frantsesa. Zerbait idazten, baina ez zen gauza handia. Arrotz sentitzen nintzen Donibane Lohizunen, arrotz. Tarte horretan, Lazaro Arandia [Argitxu Nobliaren senarra garai hartan] etorri zen nire xerka.

Argitxu Nobliak berak kontatu zizun ARGIAN (2201. zbkia): haurrak euskaraz zainduko zizkien norbaiten bila zebilen.

Hiru haur bazituzten. Argitxuren senarra Ametzetako zen, bertsolaria. Eustakio, Itsasondokoa, bertsolaria hura ere. Eta biak errefuxiatuak. Eustakio ezagutzen ninduen ni, nire familia eta denak. Ezagunak ginen Lazkaotik. Horrela, Argitxuk erran zuelarik behar zuela norbait etxerako, Eustakio nire izena eman zion. Argitxu bizi zen etxean hasi nintzen. Haurren etxean lo egiten nuen, hurrekilan nintzen 24 ordu. Polo auzoan ginen, Baionan, Villa Espinal izeneko etxean, nagusia Aurizberrikoa baitzen. Urtsa zen familia.

“
**Sinesten
genuen euskara
ikastolak
salbatuko zuela**

Hiru haur zituen Argitxuk, baina ttipi-tipia oraino sehaskan. Bestalde, momentu hartan bazen katixima eta meza giroa euskaraz, bazirela bilkurak. Argitxu bilkura haietara joan zelarrik, han egon ziren Muñoa, Gallastegi eta Etxebarriarekin. Sotaren bulegoan lan egiten zuten hirurek. Bestaldekoak ziren, eta bazekiten zer zen ikastolen mundua. Miarritzen bizi-tzen ziren. Muñoak erran zuen: “Katixima edo meza euskaraz? Nahiko nuke ikastola bat!”. Orduan erran zuen Argitxuk: “Bada andereño bat nire etxean”. Eta horrela etorri ziren Villa Espinal hartara hiru haur gehiago. Hiru haiek eta Argitxuren biak, bost haur izan ziren haste hartan.

Haur gehiago bildu ziren gero. Nola egin zenuten bide hori?

Orduko garaian, estatu frantsesean, behartua ziren 6 urtetik hara haurrak eskolan uztera. 6 urte arte, nahi zenuena egiten ahal zenuen. Zilo hori tapatu zuen Argitxuk. Bertakoa zen Argitxu, jende asko ezagutzen zuen, eta inork haur ttipia zuelarrik, erraten zien: “Aizue, zergatik ez duzue ekartzen zuen haurra ikastolara?”. Horrela ibili zen Argitxu, eta ni segidan-segidan hasi nintzen lehen haur haien anai-arrebak Villa Espinalen



JEAN TRELLU

ARRANGOITZEKO LEHEN IKASTOLA, 1970. Beheko taldean, ezker-eskuin: Aitor Gallastegi, Mikel Arandia (bizkar), Maitena Garate, Mikel Muñoa (bizkar). Goikoan, Claire Daguerre, Aitor Arandia (bizkar), Patrizia Daguerre, Ane Driolet, Maider Zabala, Xabier Iriart eta Libe Goñi.

hartzen. Baina hura ez zen etxe egokia. Haurrak eskailera gora eta behera, ez zen posible. Hortik, Enbataren bulego-
ra pasatu ginen, Cordeliers karrikara, lehenbiziko estaian.

Eta nola izan zen gauza?

Gallastegik ikuspegi handia zuen. Erran zidan: “Ikastola zabalduko dugu Donibane Lohizunen”. Eta nik: “Donibane Lohizunen? Tirrit!”. Horrela erran nion. Eta berak: “Nik hunkituko ditut ate jakin batzuk, eta ikusiko duzu”. Eta egia da, handik urte batera ikastola zabaldu zuen Donibane Lohizunen! Behar duzu jakin zein ate hunkitu, nola azaldu. Gauzak horrela dira.

Gallastegik ikuspegi handia zuela erran duzu.

Bai. Hark erran zuen: “Urte guztiz hiru edo lau ikastola zabaldu behar dira”. Eta Garat eta jende horiek: “Baina nola, ez ditugu irakasleak ordaintzen ahal”. Eta Gallastegik: “Zabaldu behar dira ikastolak herri guztietan”. Guraso batzuek baztertu ziren, beldur ziren. Bestalde, ikastola gabe sei urtetan eskola frantsesera behar zuten haurrek. Konpromiso handia zen.

Eta nola ordaindu ikastolak eta irakasleak? Udan, langabezian sartzen ginen irakasleok, estatuak guri ordaintzeko! Bada, bai! Zor handia bagenuen, eta [François] Bayrou jaunari zor diogu frantses sistemaren barnean sartzea. Ez dugu anitz irabazi ikastolan, espiritua ez zen anitz irabaztekoa, kasu... Beste espiritu bat bagenuen, eta egiten genuen kantina, ikastola garbitu... Bestalde bezala, horrela jarraitu nuen nik hemen lehenbiziko urtetan, hamar-hamabost urtetan.

“

Arras kanbiatu da egoera. Gaurko egunean, Baionako bestarik ez da mutxikorik gabe, 'Baiona kantuz' gabe, Karrikaldi gabe

Eta orain, nola da egoera, nola ikusten duzu oraingo euskara mundua Baiona alde honetan?

Arras kanbiatu da egoera.

Gaurko egunean, Baionako bestarik ez da mutxikorik gabe, “Baiona kantuz” gabe, Karrikaldi gabe... Horiek gabe ezinezkoa da. Olentzero eta ikastolak eta taloa-eta gabe, ezinezkoa da gaur egun. Iratzartze bat ekarri du ikastolak, izugarri. Bideak zabaldu ditu ikastolak, izugarri. Nonbait lurra prest zegoen. Ikastolak jendea kontzientziaraztea ekarri du, mugiaraztea, iratzartzea. Gaurko egunean, ikastolatik pasatzen diren haurrak euskaldun sentitzen dira, gauzak egiteko eta errateko beste ikuspegi bat dute. ●

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



Produktibitatea eta lan gatazkak



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Bizkaiko metalgintza sektorea gatazkan dago. Hainbeste sektoretan moduan, lan hitzarmena zenbait urte berri gabe darama, langileen soldata murrizketa eta lan baldintzen okertzea eraginez. Bitartean, soldata hazkundera produktibitateari lotzea eta lanaldiaren esleipen irregular bat jartzeko malgutasun handiagoa babesten ari da sektore honetako patronala. Ekonomiaren testuinguruak ez du negoziazioa batere laguntzen.

Sektoreko patronala, bi elementu horiei eusterakoan, azken hamarkada hauetan enpresa munduan oso landutako kontzeptuak erabiltzen ari da. Malgutasuna, talentua eta "soldata emozionala"-k, soldata enpresari egindako ekarpenaren arabera izatea oso kontzeptu postmodernoak dirudite. Baina atzean dagoena ekonomia neoklasiko estandarra da, hots, analisi neoliberal klasikoa. Soldata hazkundera produktibitateari lotzen hasten zaionean, helburua harago doa: soldata produktibitatearen arabera ordaintzea. Azken hamarkadako lan erreformen helburua hori izan da. Ordea, kontua da mundu errealean ekonomia eskola horrek huts egiten duela. Baina hori patronalei bost axola. Kapitalaren aldeko teoria baita.

Gai horren beste irakurketa bat egingo dut: produktibitatea aipatzen da, elementu zehatz eta neurgarria balitz bezala. Ekonomistok sarritan hainbat azalpenetan erabili dugun kontzeptua

Bizkaiko metalgintza sektoreko patronalak dituen bi helburuak, produktibitatearen arabeko soldata eta lan jardunaldi malgua, kapitalismoaren sorreratik izan dira helburu

da. Ekonomia bere osotasunean aztertzeke orduan erabil daiteke dituen zehatzgabetasunekin. Baina posible al da langile baten produktibitate erreala zehaztea eta horren arabera soldata ordaintzea? Lanaldi batean ekoizten denaren arabera, adibidez. Beno, horrela balitz, agian bitarteko agintari eta nagusi askok euren soldata maila galduko lukete, ezta? Nola neurtuko genuke ekoizpen hori? Erantzun zaila duen galdera erraza.

XIX. mendeko anarkistek eztabaida bera izan zuten. Kolektibistek pertsona batek enplegatutako orduen arabera izatea proposatzen zuten; anarkokomunistek, aldiz, analisi horri kritika zorrotza egiten zioten, produktu baten ekoizpenean langile batek egindako ekarpena zehaztea ezinezkoa delako. Horren ondorioz, azken hauek soldata-sistema dezagertzeke borrokatu zuten.

Eztabaida zaharra, bai, baina gaur-

kotasun handikoa. Lana eta bizitzaren arteko gatazkan, bizitza erdigunean jartzeari eskatzen denean, anarkokomunista askok egindako planteamenduetarekin bat egiten dute: soldata-sistema harreman sozioekonomikoen neurria bada, zein da lanari, zaintzei, geratzen zaien lekua?

Bizkaiko metalgintza sektoreko patronalak dituen bi helburuak, produktibitatearen arabeko soldata eta lan jardunaldi malgua, kapitalismoaren sorreratik izan dira helburu. Lanaldiaren esleipen irregular bat jartzeko malgutasuna, sektore anitzetan onartuta dagoena, patrioiaren alde aplikatzen da ia kasu guztietan. Gero lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak aipatuko dira, baina testuinguru prekarizatu honetan enpresaren aldeko malgutasun neurriekin, ez da posible. Produktibitatearen arabeko soldata, erabat irreal da sistema hori: nola neurtu eta inputatu produktu bat ekoizteko erabili den enplegu eta lan kopurua? Kale itsu batean sartzea bezala da.

Horregatik kontzeptu horiei kritika zorrotza egitea beharrezkoa da. Bizkaiko metalgintzako patronalak proposatzen duenari aurre egin behar zaio. Pausoz pauso, hainbat sektoretan hedatuz. Soldata-sistemarekin bukatzeak agian erradikala dirudi, baina hausnartuz gero, etorkizuneko aukera bat izan liteke. Azken finean, jokoan dagoena bizitzaren iraunkortasuna da eta. ●

Zer izango da?



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

Zer da? Neska ala mutila?

- Ez dakit, oraindik ez du hitz egiten eta.

Kate Bornstein transekintzaileak proposatutako erantzun hori *queer* giroetan hedatu egin da, haur txikiekin genero binarismoaren obsesioa zalantzan jartzeko. Haurdunok ere erantzun behar dugun etengabeko galdera da. Askotan, "Zer izango da?" besterik ez digute galdetzen. Hamaika gauza erantzun genezake: "Pertsona bat". "Ematen dituen ostikoekin, agian karateka". "Espero dut polizia edo militarra ez izatea!". Baina badakigu "Zer izango da?" galdetzen digunak bi erantzun posible eta bakar dituela buruan: neska ala mutila.

Saiatu naiz pedagogia egiten eta azaldu ohi dut "gehiago inporta zait bihotza ondo izatea". Edo jakinmin handiagoa ematen didala bere aurpegiaren itxurak hankartekoak baino. Pareta baten kontra burukadak ematea bezalakoxea da. Familiak astero jarraitu du galdera bera errepikatzen, begiak distiratsu: "Badakizue, badakizue? Noiz esango dizuete? Tira, badakit berdin duela, inportanteena zorionsua eta osasuntsua izatea dela, baina ilusioa egiten du jakiteak, ezta?".

Obsesio kolektibo horrek amorratzen

banau ere, SOS Arrazakerian militante nintzela aurreiritzi tailer batean bizitako pasadizo bat gogoratu dut. Dinamizatzaileok pertsona-izen bat esaten genuen, demagun Aitziber, eta taldeak bere biografia asmatu behar zuen: "25 urte. Master bat prestatzen ari da. Dantzatzea gustuko du". Demagun Babakar: "Senegaletik etorri da pateran. Top mantan lan egiten du. *Barça* jarraitzen du". Ariketa hori korapilatu egin zen dinamizatzaileok genero marka argirik ez zuen izen bat proposatu genuenean, demagun Shihab. Taldea zeharo blokeatu egin zen: generoa jakin gabe ezin zuten inor irudikatu. Ulertzen dut nire familiari hori gertatzea: sexua jakin arte, nire fetuak ez du identitate, itxura edo izaera posiblerik, eta ezin diote arroparik oparitu. Onartu behar izan dut neroni ere kostatzen zaidala irudikatzea generorik gabeko seme-alaba bat (begira, euskaraz ere senideen izen neutroak behar ditugu).

Sexu/generoa da gure gizartean ardatz zurrunena, kultur sistemak etengabe indartzen duena. Jostailu dendan, zaletasunen araberako sailkapenaren orde, generoaren araberako pasilloak aurkituko ditugu, bat urdina eta bestea arrosa. Espainiako Erregistro Zibilaren

legeak gurasoei debekatzen die haurrei pertsona-izen neutroak jartzea, "anbiguotasuna" duintasunaren kontrakoa omen delako. Euskaltzaindiak men egin eta izendegian asmatu zuen Amets, neskentzat onargarri izateko Ametsa-k izan behar duela. Eskerrak ARGIA aldizkariak, besteak beste, politika zentzugabe eta sexista horren kontra egin zuela.

Genero binarismoa eta horren zaintza dira patriarkatuaren giltzarriak, berdintasun faltaren bermeak eta pertsona trans eta intersexualentzat sufrimendu iturriak. Horregatik da hain garrantzitsua desobeditzea. Baina ez da erraza, nahiz eta diskurtsoa ondo ikasia izan. Aixa de la Cruz idazleak ere haurdun idatzi du honi buruz *La Marea*-n: "Generorik gabeko utopia, Errege Katolikoaren Espainian jainkoa ukatzea bezalakoa da". Bere haurrak alua duela jakin duenean, onartu du *queer* filosofia erabiltzen ari zela bere beldurra mozorrotzeko, alegia, gizarte patriarkal honetan alaba heztearen beldurra. Niri, ordea, beldur gehiago ematen zidan gizarte patriarkal honetan gizon bat heztea. Kontraesanak kontraesan, aitortu behar dizuet ekografoaren pantailan hankartekoa deskubritzeak hunkitu nauela. ●



INMA ERREA
IDAZLEA

Psikopolitika

Zerk eragiten digu bozka egiten dugunean? Zer ideia, asmo eta emozio daude deman? Pentsamendu politiko lausoak ala sakon hausnartu eta gero geure pentsakeran erro sendoak hedatu dituzten kontsiderazio landuak? Ingurukoekin partekatzen dugun ideologia jakin bat edo inorekin hitz egin gabe biltzen ditugun usteak –frantsesezko moldeak dioen bezala *idée reçue* horiek, jasotako ideiak–, nondik jaso ditugun ere ez dakigula? Gure ingurua, gure bizitza, gure gizartea nolakoak nahi ditugun zedarritzen duten ideia argiak ala erraie-tan gogorrago edo ahulago imurtxi edo kili-kili egiten dizkiguten sentipenak?

Zer jotzen dugu garrantzitsuago herriarrok? Gure bizimodu partikularra hobetu behar digutela dioten promes itxurapainduak edo guztiondako ongizatea agintzen diguten programa orohartzailleak? Zeri heltzen diogu? Alderdien programen eduki burutsuei ala kanpainen estetiken ederrari? Alderdiek aldarrikatzen dituzten ideiei ala proposatzen dizkiguten hautagaiei?

Eta alderdiendako, zer da inportanteago? Afiliatuen irudipenak eta desirak ala boto-emaleen eskaerak eta baldintzak? Zer paper jokatzten duten alderdien antolamenduan buruzagien egoek, asmo handinahiek eta pertsonalismoek?

Eta, bestalde, zer neurritan dira mundatun, noraino eragile, bestelako faktoreak? Alderdi eta hautetsien parametro etikoek, adibidez, berdintsu eragiten dute ezkerrean eta eskuinean? Nola, zenbatean, baloratzen dugu herritarrok afera publikoen kudeaketa, eta nola, zenbatean, alderdien jarrera baketzailleak edo liskartsuak debate politikoan? Zertan hartzen ditugu kontuan, botoa emateko orduan, gaien tasun sinbolikoak edo aferen balio pragmatikoak?

Zenbateraino dira erabakiorrak herri-tarron baldintza partikularrak –unean unekoak, on eta txar–, inguruabar kolektiboak eta balizko itxaropenak? Eta zenbateraino, sinesmenak, tradizio kulturalak edo kontsumitzeko erak, eta, are, geureganatzen ditugun eduki mediatikoak?

Posible al da horiei guztiei neurria hartzea, antzinako filosofia batzuek ilusio huts gisa jotzen zituzten pentsamendu eta emozioetatik harago?

Ala derrigorrezkoa dugu, kondena eta madarikazio, lau urtean behin sistemak saltzen dizkigun amets, asmo, zirrara eta irudipenen zurrumbiloan galtzea?

Nafarroan 2015eko aldaketak aurrera egin izan balu, ez nintzatekeen arituko, segur aski, halako galderak egiten (eta, horren ordez, etorkizuneko erronka *ilusona-garriak* izanen nituzkeen hizpide...). ●

Lehen mailara



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Baiona eta Iruña birazkatuak dira aspalditik. Bateko ala besteko bestetan, hiri horietako auzapezak ikusten ditugu karriketari ibilki, zuriz eta gorritz bezi. Gertakari bateratuak programatzen dira halaber, hala nola Iruñako Karrikiri eta Katakarak-ek, Baionako Maiatz elkartearekin, antolatzen dituzten *Maiatzaldi* ekitaldiak. Gure baitan lotan dagoen nafarzaletasuna iratzartzen bezala da, eguzkiak bere muturra agertu orduko.

Destino bateratua ere somatzen da kirolaren alorrean. Iruñan pilota eta futbola dira nagusi. Baionan aldiz arrauna eta

errugbia. Bietan, oldeak biltzen direla sutuki bakoitzak bereak sustengatzeko. Sagar, Labrit eta Jean Dauger kirol-guneak egiazko tupinak dira, jendearen burbui-lez eta oihuz hanpatuak. Halako komunio bat sortzen da, neoliberalak amesten dutenaren arabera: klase sozialik ez da gehiago, bizitza, ardura, galtzaile gisa eramaten duen publikoak aho batez deia-dar egiten du garaipenaren alde.

Eta hori da gertatu, azken aldiotan, bai Baionan eta bai Iruñan: Osasuna eta Aviron baionarra lehen mailara igo dira, jarraitzaile itsuen artean, eromen atsegintua eraginez. Horrek ez du preziorik. ●

Erditu



ANA MENDIA
EMAGINA

Zutik erditu zen. Belaunak apur bat tolestuta. Zabal-zabalik begiak ilunpetan. Izerdiak berrozaztutako melena aurpegian pega-pega eginda. Ezpain-ertzetan listu arrasto zurixkak. Arnas-hartze sakonen hotsa barealdietan eta erraietatik ernatutako orroa tarteka-marteka. Emagina belauniko eta eskuak gertu haurra lurrera eror ez zedin ongi-torrirako prest. Garrasi zorrotzagoa bat-batean. Sua baginan. “Hemen da”. Hankartetik amaren besoetara haurra. Odol zurrusta izterretan behera. Giharrak dardarka. Bigarren erditze-gelako lurra odolez, likido amniotikoz eta kakaz orbanduta.

Nago gehiegi hitz egiten dela erdiminaren inguruan eta ezer gutxi dakigula errespetatutako erditze-lanak dakarren ahalduntzeaz. Eta pena da, baina zinez da herrena mediku esku-hartzerik gabe erditzea nahitaezko sufrikario gisa ulertzen duen sistema.

Gure gizartean erditzeak min ematen du, gehienetan. Ados. Dena den, nahita diot *gure gizartean*; ezin ahaztekoa baita erdimina egoera emozional, kognitibo eta soziokulturalek baldin-

Nago gehiegi hitz egiten dela erdiminaren inguruan eta ezer gutxi dakigula errespetatutako erditze-lanak dakarren ahalduntzeaz. Eta pena da, baina zinez da herrena mediku esku-hartzerik gabe erditzea nahitaezko sufrikario gisa ulertzen duen sistema

tzatzen dutela. Alegia, “minez erdituko duzu” ez zen debaldekoa. Hala ere, benetan da sinplista erditze-esperientzia minari soilik erreparatuta labur daitekeela sinestea. Eta ez da iritzi kontua, ebidentzia kontua baizik: ikerketek frogatu dute minaren intentsitatea ez dela faktore esanguratsua erditze esperientziaren asetasunari dagokionean; haatik, erditzean zehar hartzen diren erabakien gaineko norberaren

kontrolak asetasunarekin lotura estua du. Horregatik, erditzearen gogobeteo bizipena badugu xede behintzat, ezinbestean ulertu behar dugu haurdunena dela erabakitzeke boterea. Ze, erditze normala ez da jazoera patologikoa, bizipen sexuala baizik.

Hala ere, zenbaitetan kontzeptuak nahasten ote ditugun egiten dut zailantza. Kezkatu egiten naiz erditzeak azterketa ideologikoaren tankera hartzen duen bakoitzean. Erditzean ez dago zer frogaturik. Ez da amatasunerako sarrera-froga. Ez da koherentziaren erakusleiho. Ez da norgehiagoka. Erditza aurreikusi ezin den amaieradun bidaia emozional ezezaguna da eta norbera bere motxilarekin heltzen da irteera-lekura.

Finean, erditza haurdunak bere kabuz jorratu beharreko zeharbidea da; lagunduta jakina, baina hark bakarrik. Eta emaginona da norbere iritzia alde batera utzi eta emakumeak nahi duen gisan erdi dezan konfiantzazko ingurune aske eta segurua eraikitzeke zeregina. Egin dezala, beraz, norberak ahal duen eran nahi duena eta nahi duen eran ahal duena. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hemani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

LIBURUA
SALGAI!
14€

BERDEA DA MORE BERRIA

**BIZKAIKO EGOITZETAKO
GREBALARIEN TESTIGANTZAK**

Onintza Irureta Azkune



Oporrak

ATZOKO BORROKA GAURKO ESKUBIDE

Ordaindutako opor egunak izatea ez da aspaldikoa, XX. mendean langile borroken ondorioz lorturiko eskubidea da. 1936ko Frantziako Estatuko greba handiak mugarri izan ziren langilearen atsedeen eta bizi pozerako, baina egungo muturreko merkantilizazioak desitxuratu egin du oporren zentzua bera, eta kontraesan jarri du beste arazo larri batzuekin, lan-prekarietatea edo klima aldaketa kasu. Joango gara hasierara?

 URKO APAOLAZA AVILA



Badaude zazpi edo zortzi hitzarmen, batzuk enpresakoak eta besteak kolektiboak, baina ez da bat bera ere ezartzen. Oporrak edukitzeko eskubidea, ordu estrak, bajak... hori amets bat da Murtzian". Mustafá Zidaniren hitzak dira, Alafa nekazal *temporero*-en sindikatuko ordezkariarenak. *El Salto* egunkariari azaldu dio espainiar lurralde hartako baratzetan lan egitea zer den atzerritarrentzat. Letxuga bandeja bakoitzeko ordaintzen dieten eta mota guztietako gehiegikeriak jasaten dituzten migratzaileok –asko emakumeak–, oporra, jai eguna edo atsedena zer den ez dakite.

Zenbaitek alderatuko du XXI. mendeko esklabo hauen egoera Antzinaroko erromatar inperioak beretzat zituena-rekin, baina ez, haiek sikiera bazuten opor egunik. Tarkino Harroak Lazioko herriak elkartzeko "feria latindarrak" aitortu zituenean, esklaboei jai egun bat ematen zieten Jupiterri opariak egin ziezaieten Albaniako Cavo mendiaren magalean: *vacare* hitzetik datoz bakantzak, "jabe gabe" edo libre egotetik. Orain ere lanetik aske egiten gaituzte oporrek, baina kontrara kontsumoaren zurrumbilora kateatu, ustezko aurrerabidearen izenean pagatu beharreko dislokazio soziala da hori.

HASIERAN, LO ORDURIK ERE EZ

Oporretara edo atsedena hartzera bidaiatzea aberatsen bizimoduaren sinonimo zen XIX. mendean –eta gaur ez akaso?–. Aristokraten eta goi burgesiarren turismo klase hori oso azkar eza-gutu genuen Kantauriko bazterrotan. Hasieran Miarritzeko Villa Eugénien biltzen ziren politikari eta enperadoreak bertako giro epelaz gozatzera, eta geroago Donostiako kasinoetan ere ikusiko ditugu antzeko pertsonalitateak.

Aldiz, jende xehearen gaztan ez zen kabitzen halako ideiarik, laneko azken izerdi tanta bizirauteko isurtzen baitzen. Alemanian baina, obreroak osasunari loturiko atsedena aldarrikatzen hasi ziren, industrializazio betean aste osoan hamalau orduko lanaldiak jasaten zituztelako –konfesatzeko igandea barne–. Gerora fordismoak popularizatutako fabriketako kate-sistemak ez omen zuen beste aukerarik uzten, erantzuten zuen nagusiak.

Hala ere, langile mugimendua-ren hastapen horietan deskantsurako

egunak oraindik ez ziren lehentasun haien eskakizunen plantxan. 1890eko Bizkaiko meatzarien greba handian, esaterako, oso oinarrizko kontuez hitz egiten zen: hamar orduko lanegunak edukitzea, langileek barrakoietan lo egin behar ez izatea... "Korneta kolpez, goizeko lauetatik arratsaldeko zortzietara lan eginarazten diete, eta artaldean antzera aterpetzen dituzte, higieena, atsedena eta lo orduak kenduz", diote egunkari burgesetako kronikak eskandalizatuta.

Lehen "opor ordainduak" mende hasierako iraultzen eskutik etorri ziren. Mexikon 1917ko konstituzio berriak urtero hamaika atsedeen egun aitortu zituen –igande eta larunbatak, beti ere–, iraultza garaiko dekretu militarrei jarraiki; eta boltxebikeek ere ezarri zituzten opor egun batzuk, baina gutxi batzuen sari gisara. 1920ko hamarkadan Italian, Austrian, Finlandian edo Suedian zenbait araudi onartu ziren funtzionarioei jai emateko, eta opor ordainduen aldarrikapena pixkanaka zabaltzen hasi zen, bai trenbideko langileen bai tipografoen artean.

Tarkino Harroak "feria latindarrak" aitortu zituenean, esklaboei jai egun bat ematen zieten Jupiterri opariak egiteko: 'vacare' hitzetik datoz bakantzak, "jabe gabe" edo libre egotetik

1931ko azaroaren 21eko Lan Kontratuaren Legeak zazpi jai egun ezarri zituen Espainiako Estatuan –Hego Euskal Herriko lurraldeak barne–. II. Errepublikaren aurrerapen anitzetako bat izan zen hura. Egun horiek enpresak ordaindu behar izaten zituen, hau da, langileari urteko lanaldia murriztu zitzaion, baina soldatari koskadarik egin gabe, Francoren diktadurak geroago "uztailaren 18ko pagarekin" egin ez bezala –kasu honetan langileek ordaintzen zuten euren poltsikotik, enpresei komeni zitzaielako–. Hala ere, lege errepublikar berritzailearen eragina oso mugatua izan zen.

1936KO GREBA HANDIAK

Egun dugun bakantzetarako eskubidearen gertaera fundazionalik baldin bada-gu, seguruenik hori izango da 1936ko maiatzaren 14ko gauean Pariseko periferiako Courbevoie herrian langileek Bloch fabrika okupatu izana. Pariseko Komunaz geroztik Frantzian inoiz ikusi gabeko greba garai baten hasiera izan zen ekintza hura.

Giro politiko eta soziala oso nahasia zen. 1929ko burtsen kraxak ondorio larriak ekarri zituen langileentzat: Frantziako Estatuan langabetuak pasa ziren 350.000 izatetik 826.000ra. Ezkerra bannanduta zegoen bitartean –sozialisten eta komunisten artean–, faxismoa gorantz zetorren, Mussolinik Italian eta Hitlerrek Alemanian boterea bereganaturik. 1934ko otsailaren 6an herritarrrak ikaratuta geratu ziren, liga faxistek berealdiko erakustaldia egin baitzuten Paris erdian Asanblea Nazionala eraisteko asmotan. Horren kontrako langileen erreakzioa Fronte Popularraren ernamuina izango zen: "Batasuna! Batasuna!" oihukatuz hartu zituzten kaleak.

1936ko maiatzean Fronte Popularrak hauteskundeak irabazi zituenean, berehala nabaritu zen koalizioaren ahultasuna, SFIOko buruzagi sozialistek eta PCFko komunistek Alderdi Erradikalaren –familia kapitalista handien ordezkari– eskaera askori men egin zieten, gobernuak iraute aldera. Baina obrero xumeak ez zeuden prest kanpainako promesak haizeak nola eramaten zituen ikusteko. Lehenik Blochen, gero Renaulten, Citroënen eta azkenik estatu osoko industrian, greba orokorra lehertu zen, aldarrikapen laboral zehatzekin. Besteak beste eskatzen zuten astean 40 orduko lanaldia –48 ordukoa beharrean–, eta ordu estrak eta oporrak ordaintzea.

BAIONA ETA MIARRITZEKO JOSTUNAK GARAILE

Euskal Herrian borroka hark Bokaleko Forges de l'Adour usinan –2.000 langile– izan zuen oihartzunik; baina batez ere ehungintzako biltegi handietan eragin zuen. Baiona eta Miarritzeko moda saltokietan, Dames de France edo Printafix kateetan kasu, langileak kalera atera eta herriko etxeen parean bildu ziren. Baionako A la Ville de Madrid etxeko beharginei soldata igoera eskaini zien nagusiak, "baina grebalariek uste dute 40 orduak direla lortu beharreko lehen gauza, eta



TRENERAKO BILLETEAK
1936tik aurrera Frantziako gobernuak "oporretarako billete popularra" atera zuen, tarifa murriztuarekin. Goian, Baionako Herriko Etxeak emandako billetea. Ezkerrean, herritarrek Britainiako hondartzan bainuan.

batez ere opor ordainduak", zioen *Gazette de Bayonne*-k. Egunkari errepublikar moderatuaren hitzetan, Miarritzen, saltoki bateko hemeretzi jostunek akordioa lortu zuten nagusiarekin eta *Marseillesa* kantatuz joan ziren grebalariak hango lorategi publikora garaipena ospatzera.

Langileek enpresa eta sektoreetan hitzarmen kolektiboak lortu ahala, are gehiago zabaldu zen lanuztea; fabrikak euren esku zeuden eta ekonomia erabat kolapsatzeko gaitasuna zuten. "Frantziar iraultza hasi da!" aldarrikatu zuen Leon Trotskik usinetako greba komiteei begira. Errusiar sobieten traza hartu zien lider komunistak batzar horiei: "Klase iraultzailearen gobernu zuzena dira".

Fronte Popularra osatzen zuten alderdietako buruzagiak, izan ezkerreko

zein burges, ikaratzen hasiak zeuden egoerarekin. Ekainaren 7an, Léon Blum

***Euskal Herrian,
40 orduen eta
oporren aldeko
1936ko greba handiek
Forges de l'Adour
Bokaleko usinan eta,
batez ere, Baiona
nahiz Miarritzeko
ehungintzako saltoki
handietan eragin zuten***

gubernuburuak Pariseko Maignon hotelean sindikatu nagusietako ordezkariak

riak bildu zituen, eta hantxe sinatu zuen *Matignoneko Akordioa*, askoren aburuz eskubide laboralen arloan eta soldate-tan aurrerapen historikoa ekarri zuena. Itunaren lehen artikuluan, esaldi bakarrean, garbi adierazten zen patronalak onartzen zuela hitzarmen kolektiboak berehala ezartzea. Horrek esan nahi zuen, 40 orduko lanaldia lortzeaz gain, milaka langilek lehen aldiz "benetako" oporrak izango zituztela.

Baina mugimendua ez zen inolaz ere itzali. Akordioa sinatu eta lau egun geroago, ekainaren 11n, Bordelen 9.000 grebalari zenbatu zituzten, eta Frantzia osoan 1,2 milioi lagun zeuden geldirik, Blumen gobernuaren arabera, kasu askotan festa giroan. Okupazio "alaien" garaia hasi zen. Egun horretakoak dira Maurice




ITSAS MENDI Karabanak eta autokarabanak



- Europako marka garrantzitsuenak:
KNAUS, HYMER, BENIMAR, PILOTE.
- Salmenta ondorengo zerbitzu bermatua

itsasmendi@itsasmendi.com / www.itsasmendi.com
Errep. Nazionala 1 - 20140 Andoain (GIPUZKOA)
Tel. 943 59 32 90



— Oh! Horreur! Impossible de rester ici! Ils se baignent dans notre océan, ils respirent notre air et se font brunir par notre soleil!

KARIKATURAK

Goi burgesia frantziarrak mespretxuz hartu zuen 1936an 'conges payes' edo opor ordainduekin herritar xumeek ere bidaiatzeko aukera eduki izana. René Dubosc ilustratzaileak umorez kritikatu zuen jarrera hori bere karikaturetan. Irudian, aberaskumeek diote: "Oh! Izugarria! Ezinezkoa da hemen geratzea! Gure ozeanoan ari dira bainuan, gure airea ari dira arnasten eta gure eguzkiaz doratzen!"

Thorez meatzari ohi, Frantziako Alderdi Komunistako idazkari nagusi, eta Funtzio Publikorako ministroaren hitz ezagunak, metalurgiako langileei zuzenduta: "Beharrezkoa da jakitea noiz amaitu greba bategin, eskaerak asebetete direnean".

Hortik aurrera, sindikatuetak eta ezkerreko alderdietako makinaria osoa martxan jarri zen fabriketako okupazioak bertan behera gelditu zitezten. Egungo korronte antikapitalisten ustez "aukera galdua" izan zen, Europaren bihotzean iraultza abiarazi eta faxismoari ateak ixteko.

EUSKAL KOSTALDEAN, "TURISTA SALDOEN" BELDUR

Faxismoaren eta nazien alde behin eta berriz idatzi zuen *Eskualduna* egunkari katolikoa, aitarenka aritu zen egun

horietan: "Sekulan orai artean ikhusi ez dena, langileak jabetu dire nausien lantegi eta chantierrez. Eta Gobernuak ez du deusik egin nahi izan fuera kanporat igortzeko (...) Lana, astean berrogei oren, zazpi ore egunean, jornalak goratuak eta urthean, bi hiru aste bakan-tza, nagusiek pagatuak. Eta horra haste! Mundu berri espantu handiak balu aski argi bazterrerat so egiteko, zer ikus lio?", irakur zitekeen bere orrietan.

Uda hartan ez ziren gutxi izan bizikletak hartuta edo oinez, egun pasak egin zituzten familia xumeak, "oporraldiari" zuku pixka bat ateratzeko aukera bakarra hori zen, besterik ezean. Hala ere, Frantziako Gobernuaren datuen arabera, 580.000 langilek erosi zuten "oporretarako billete popularra": tre-

nean tarifa murriztua zuten 200 kilometrorainoko bidaietarako -%40ko deskontuarekin-. Askok lehen aldiz ikusi ahal izan zuten itsasoa Normandiako edo Britainiako kostaldean, baita Ipar Euskal Herrian ere.

Goi burgesiaren turismora ohitutako sektore klasistek mespretxuz ikusten zituzten opor ordaindu edo conges payes delakoak. René Dubosc ilustratzaileak argitaraturiko karikatura kritikoak dira horren isla. Miarritzen udal dekretu batek debekatu egin zuen "hondartzan erantzi eta janzteko portaera higuigarria". Iparraldetik iritsitako Fronte Popularraren bagoietan *bigarren mailako* turista saldoak espero zituzten Miarritzen, Donibane Lohitzunen edo Hendaian.

Baztanen nekazaritza herriko eta iraunkorra

Baztango Udala
www.baztan.eus



ARGIA ARTXIBOA

30 OPOR EGUN. 70eko hamarkadan enpresetako lan gatazketan hilabeteko oporraldia ere sarritan izaten zen, beste eskaera batzuen artean, langileen aldarrikapen plataformetan. Irudian, garbiketa sektoreko emakumeak Donostiako mobilizazio batean 1978an.

Baina benetako jende saldoa hegoalde-tik heldu zen ustekabeen: milaka errefuxiatuk Bidasoako muga igaro zuen abuztu eta iraila artean, Espainian altxatu ziren militar faxistengandik ihesi. Bi errealitate oso desberdin, hondartza bakarrean.

1948: ONGIZATEAREN SINBOLO ETA ESKUBIDE UNIBERTSAL

Frantzia opor egunak lortzeko hasitako bideak segida izan zuen Bigarren Mundu Gerraren ondoren: 1956an hiru aste, 1968an lau... Mitterranden garaian bost astera iritsi ziren, baina hor eten zen ma-

kina. Oporraldia edukitzea ongizate estatuaren sinbolo bihurtu zen. Hala, 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak aisia, deskantsua eta "opor ordainduak" izateko eskubidea aitortu zuen.

Hego Euskal Herrian nola Espainiako Estatuan, ordea, eskubide hori atzerapen handiz heldu zen, Francoren erregimen autarkikoak kateaturik baitzegoen sistema ekonomiko osoa. 1960ko hamarkadan gizarte aseguru mota ezberdinak bateratzearekin, pixkanaka joan zen zabalitzen atsedena hartzeko aukera, baina langileek oraindik urte askoan borrokatu

behar izan zuten hitzarmen kolektiboetan oporraldi duinak edukitzeko, zenbaitetan odola isurita ere bai.

1970EKO LANGILEEN ALDARRIKAPEN PLATAFORMETAN

Ferrol, Galizia, 1972ko martxoaren 10a. Bazan ontziolaren inguruan Amador Rey eta Daniel Niebla obreroen hilotzak daude lurrean. Minutu batzuk lehenago, hitzarmen kolektibo hobea galdegiten ari ziren manifestazioan: 400 pezetako jor-nala eta hilabeteko oporraldia eskatzen zuten, sindikatu bertikalean infiltraturiko

Azpea
Jatetxea-Restaurante

ARDO EKOLOGIKOAK
Lumbier (Nafarroa)
☎ 948 880 433
www.bodegasazpea.com

PYRÉNÉES ATLANTIQUE
HOTELA

64310 SENPERE
T. 05 59 54 02 22 · hotel-pyrenees@wanadoo.fr
www.hotel-pa.com

ANZIZAR
CARAVANING

TOLDOAK · BEROGAILUAK · BIGARREN BATERIAK
ALARMAK · GIRATORIOAK · MULTIMEDIA
☎ 943 881 700 · Beasain (Gipuzkoa)
anzizar@anzizar.com · www.anzizar.com

CCOOko sindikalisten bidez. Baina poli-ziak gupidagabe tirokatu ditu, eta liskar odoltsuan, hildakoez gain zaurituak ere dozenaka dira. Hurrengo egunetan zenbatesinak dira atxilotuak, kartzelaratuak, prozesatuak... Frankismoa berriz ere eskarmentua eman nahian langileei. Gerroztik, Galiziar Langile Klasearen Eguna ospatu ohi da martxoaren 10ean.

Gasteizko asanbladetan, Nafarroako esne eta haragi sektorean, Bizkaiko bulegoetan, Azpeitiko altzari lantegietan... denetan, soldatak ez ezik, 30 opor egunak ere zeuden jokoan 70eko hamarkadan

Lan baldintza hobeak lortzeko borroka horretan, ezinbesteko izan zen emakumeen papera. 2018an *¡Esto se cae!* dokumentala estreinatu zuten -interneten ikusgai, galegoz-, 1972ko Ferrolgo gertaeren inguruan *muller* horien testigantzak jasoaz: "Frankismoaren amaieran zer zen emakume izatea? Nola hartzen zituzten aintzat sozialki? Ferrolen oso garrantzitsuak izan ziren. Berrehun gionezko auzipetu zituzten, baina horien atzean berrehun familia zeuden, amak eta emazteak. Beraiek amore eman izan balute dena behera eroriko zen, baina ez zuten halakorik egin", dio Rosa Cal idazleak dokumentalean.

70eko hamarkadan, enpresetan gero eta sarriago gertatzen ziren gatazketan

urteko 30 eguneko bakantzen eskaerak indar handia izan zuen, batez ere langile mugimendu sendoa zegoen tokietan, Nafarroan kasu. 1973ko urtarrilean, esaterako, Iruñeko Arrotxapeko Salvador elizan itxialdia abiatu zuten Torfinasako langileek, tartean hilabeteko oporrak eskatzeko. Eta hori bera izan zen 1974ko abenduaren 11ko greba orokor indartsua piztu zuen txinpartetako bat.

Gasteizko metalgintzako asanbladetan, Nafarroako esne eta haragi sektoreko enpresetan, Bizkaiko kudeaketa bulegoetan, Azpeitiko altzari eta egur lantegietan... Denetan, soldata igoerak ez ezik, 30 egunak ere zeuden jokoan urte horietan.

BIZIKLETA BATEN GAINEAN JABERIK GABE?

80ko hamarkadan, behin Thatcher eta Reaganen errezeta neoliberalak zabalduta, industria birmoldaketa eta langabeziaren mamuarekin, oporrak edukitzeko eskubidearen aldarrikapena zokoan geratzen hasi zen, beste lan borroka garrantzitsu batzuen aldean. Eta ahazten dena, galtzeko arriskuan dela esan ohi da.

2000. urtean, Lisboako gailurrean ahoan bilorik gabe hitz egin zuen Robert Kagan AEBetako aholkulari *neocón* eta estrategia militarrik: "AEBak bere segurtasunerako nahi adina diru bideratzeko prest dauden bitartean, Europar nahiago dute euren bideratu gizarte segurantzako programetara edo opor garai luzeetara".

Hemeretzi urte geroago, Europar Batasuneko gastu militarra inoiz baino handiagoa da -284.000 milioi dolar-, eta aldiz, inoiz baino jende gehiago dago lan prekarioaren neskame eta morroi, berdin Murtziako soroetan nola Bilboko kaleetan bizikleta baten gainean. Galde egiezu haiei oporretan edo "jabe gabe" egotea zer den. ●



ATZO GAUR BIHAR
1945

Ogitarteko eta pintxo bero zein hotzetan espezializatua

943 42 74 05

ENBELTRAN KALEA, 6
DONOSTIA



KANPIN EKOLOGIKOA

GELA ANITZAK

60 lagunentzako 6 oheko 10 gela.
Jatetxean erreserbak egiteko:
635 09 31 40

Arbizu (Nafarroa)

☎ 848 470 922

info@campingarbizu.com
www.campingarbizu.com

LOPERENA ETXEBERRI
landetxea

Goldaratz (Nafarroa)

☎ 948 503 238
casaetxeberri@gmail.com

urpa
BUS

Pol. 55, 8º Ubilluts - edif. 9 / nº4
☎ 943 305 050
20140 Andoain (Gipuzkoa)
www.autocaresurpa.com
info@autocaresurpa.com

Neguko tximeletak

KOBAZULOEN ILUNPEKO EDERTASUNA

Tximeletak hegan. Lorez lore ari dira aireko dantzaldi dardarietan murgilduta.

Udaberria da eta loratu dira zelaiak, esnatu omen da natura. Atera dira tximeletak.

Atera dira, bai. Nondik atera, ordea?

Non pasatzen dute bada negua tximeletek?

 IÑAKI SANZ-AZKUE
 DANI BLANCO

Kosta egiten da sinestea, baina badira negua kobazuloetan babesturik igarotzen duten tximeletak. Ez gaitezen nahastu. Lorez beteriko belardi ederrren azpialdean, kobazuloak zulo ilun eta bizigabea baino askoz gehiago dira. Organismo eder eta bitxiak bizileku. Oraindik negua dela, martxoan, kobazulo horietako batean sartu gara. Zehazki, Araotz-Oñatin, Arrikruzteko kobetako harreran egin dugu zita. Arrikruzteko gidari Maddi Mujika eta Zerynthia taldeko kide Iker Novoa ditugu gidari. Eurek erakutsi dizkigute Araotzeko kobazuloetako sekretuak: tximeletatik hasi eta Iberiar penintsulako barraskilo lurta-riki txikieneraino. Arrikruzteko kobaren handitasunean, txikiari jarri diogu guk arreta. Ezkutuan, oharkabean, ilunpean dauden izaki bizidun eder horiei.

Gipuzkoako kobazulo sarerik zabalenean gaude. Esku-argien laguntzaz ingurura begiratu dugu: harria eta ura. Hori da gure begiek ikusi dutena. Ingu-runearen sinpletasun horren barruan, ordea, xehetasun txikiak ere bere garrantzia du. Kobazulo barruko organismoetako asko troglobioak dira; euren bizi-ziklo osoa koba barruan igarotzen dute eta ezin dute haitzulotik kanpo bizi. Barruan bizitzeko, ordea, materia orga-

nikoa behar dute. Baina, nondik atera materia hori?

Materia organiko gutxi dago kobazuloetan, eta dagoen gutxi hori paradisua da bertako organismoentzat. Animalien gorotzak, kanpotik sarturiko eta hildako animaliak, edota urak ekarritako materia oasi bihurtzen dira leize barruko desertuaren erdian.

Kobatik kanpo, edo koben sarreran errazagoa da. Ez baita gauza bera kobaren sarrera edo barnealdea. Gezurra badirudi ere, zuloaren iluntasunean bada go zonifikaziorik. Dena ez da harria eta ura, dena ez da berdin. Koben sarreran, argiak sartzeko baimena duen eremu horretan, esaterako, landareak egon daitezke, eta horiek lortuko dute organismo askok bizitzeko behar duten materia ez-organikoa organiko bihurtzea. Kobaren sakonean, iluntasunean, ordea, ez dago landarerik. Bakterioak izango dira landareen lana egingo dutenak. Izakirik txikiak ere sekulako garrantzia hartzen du kobaren handitasunean.

BARRASKILO OSO BEREZIA

Kobazulo sarrerako armiarrei eta tximeletei Quimper barraskiloa (*Elona quimperiana*) gehitu zaie. Kantauriar itsasertzean eta Britainia frantsesean baino aurkituko ez dugun oskol zapaleko barraskilo hau,

alabaina, ez da koban aurkituko dugun molusku bakarra. Segituan azaldu zaigu beste harribitxi bat: *Zospeum vasconicum*, Iberiar penintsulako barraskilo troglobio txikiena, 1,3 milimetrokoa. Gidariek utzi diguten lupa txikia begietan jarri eta hormari itsatsita dauden izaki ñimiño horiei begira jarri gara. 2015ean izendatu zuten espezie barraskilo berezi hau. Oñatiko Araotz bailaran harturiko lagin baten azterketari esker izan zen hori. Eta hortxe gaude gu, mundu osoan Euskal Herriko eremu txiki batean baino bizi ez den orno-gabe berezi honen aurrean.

Koba erdiko putzu txiki batean mugimendua sumatu dugu. Krustazeo txiki bat da, leize barruko organismo askoren moduan depigmentatua. Berezia, zinez. Zorteko gara gaurkoan. Gutxitan ikusten direnak aurkitzeko aukera izan dugu. Neurri txikian eraikitako barne mundu horretan opiloi bat izan da kuku egin digun azkena. Estalagmitaren puntako zirrikituetan dabil ezkutatu nahirik. Eta gu, kobazuloa hilda zegoelakoan...

ARAOTZ-OÑATIN, ARRIKRUTZEKO KOBETAN EGIN DUGU HITZORDUA. KAREHARRIZKO HORMETAN TOPATU DITUGU *ALUCITA HEXADACTYLA* TXIMELETAK. EGURALDI ONAREN ZAIN DAUDE KOBATIK ATERA ETA KANPOKO BIZIMODUA HASTEKO.



DENA EZ DA TROGLOBIO

Organismo guztiak, alabaina, ez dira troglobioak. Badira, kobazulo barruan nahigabe sartzen direnak: arrabioak, apoak... edota koban euren zikloaren zati bat baino igarotzen ez dutenak: saguzarrak, esaterako. Azken talde horren barruan aurkituko ditugu ere tximeleta batzuk. Tximeletek negua non igarotzen duten galdetu digute ibilbidearen hasieran Mujikak eta Novoak. Erantzunaren bila goaz. Arrikruzetik atera, eta Sandailiko (Santa Ilija) kobara joan gara Araotzeko bailara utzi gabe.

Iker Novoak hartu du hitza. Tximeletek negua pasatzeko modu ezberdinak dituztela, eta horren eredu ezberdinak ikusteko aukera izango dugula esan digu. Esan, eta bete: *Endromis versicolora* izeneko neguko tximeletak, esaterako, baldintza "txarretan" aktibo egoteko gaitasuna du. Neguan eta euriarekin ikus daiteke hegan, batez ere baso mistoa dagoen eremuetan, urkia eta haltza aurki ditzakeen lekuetan. Emea gautarra eta arra egunekoa izanik, bitxia da ugaltzeko erabiltzen duten estrategia. Emeak eguna landare baten gainean igarotzen du, geldi, baina feromonak botatzen. Arrak buruaren aldeetara dituen antena lumakarekin emearen feromonak sumatzen dituenean, harengana hurbildu eta estalketa gertatzen da. Gauez, emeek hegan egiteari ekingo diote, eta landare egokiaren bila hasi (urkia, askotan) arrautzak bertan jartzeko.

Negua, baina, ez da tximeletentzako garai onena. Horiek aktibo ikustea, beraz, espezie gehienetan ez da ohikoa. Negua pasatzeko, espezie ezberdinek estrategia ezberdinak erabiltzen dituzte. Topazio tximeletak (*Thecla betulae*), esaterako, negua arrautza moduan igarotzen du. Uda amaieran jartzen dituzte arrautzak elorri beltzaren adar txikienetan, eta negua pasata, elorriak loratzean, aterako dira beldarrak horietatik. Eloorriaren loreak izango dira euren lehen-dabiziko bazka.

Prozesionaria edo pinu-beldarraren (*Thaumetopoea pityocampa*) kasuan, krisalida moduan igarotzen dute negua askok, lur azpian. Udako baldintzak onak ez direla ikusita, espezie honetan gai dira hainbat urtez lur azpian krisalida moduan pasatzeko, baldintza onak iritsi arte. Beste kasu askotan, ordea, beldar moduan igarotzen dute negua, pinuan egin ohi dituzten poltsa zuri ezagunetan. Pinutik jaitsi eta lur azpira sartuko dira, multzoan. Udaberria krisalida moduan igaroko dute, udan tximeleta heldua lur

azpitik ateratzeko; esan bezala, baldin eta baldintzak onak badira.

Bada beste estrategia bat are deigarriagoa egiten duena tximeleten mundu ezezagun hau. Badira negua kobazulotan igarotzen duten espezieak. Horma zurrunen eta iluntasunaren babesean igarotzen dutenak. Horiek aurkitu nahian Sandailiko kobara sartu gara, eta han aurkitu ditugu. Hormetan, lo, udaberria noiz etorriko zain.

KOBA, TXIMELETEN NEGUKO BABESGUNEA

Kobara sartu, eta segituan ikusi ditugu. Kareharrizko hormetan topatu ditugu *Alucita hexadactyla* eta *Scoliopterix libatrix* tximeleta espezieak. Eguraldi onaren zain daude kobatik atera eta kanpoko bizimodua hasteko. Negua barruan igarodutela aipatu digu Novoak. Horrek, ordea, galdera bat sortu du ibilbidera gerturatu direnen artean: "Baina, tximeletak ez al ziren jaio eta egun gutxira hiltzen?". Oso zabaldua dagoen ustea gezurtatu du berak: neguko tximeletek, adibidez, hilabeteak igaro ditzakete heldu moduan. Udan tximeleta heldu bihurtu, eta udazkenaren ostean neguan koban sartzen dira loaldian sartzeko. Udaberrian, irten, ugalduta eta hil egiten dira.

"Baina tximeletak ez al ziren jaio eta egun gutxira hiltzen?". Oso zabaldua dagoen ustea gezurtatu du Iker Novoak: neguko tximeletek, adibidez, hilabeteak igaro ditzakete heldu moduan

Txangoa neguan egin dugun arren, udaberriaren gertutasuna nabaria da. *Scoliopterix libatrix* tximeletak kopulan aurkitu ditugu koban. Eguraldi onak iristen direnean gauez aterako dira helduak, eta udaberri-uda osoa kobazulora sartu-irtenean ibiliko dira. Sahatsetan eta makaletan jarriko dituzte arrautzak, eta arrautzetatik aterako diren beldarrek sahatso hostoak jango dituzte. Tximeletetan elikatze eta hazkuntza fasea beldarrarena da. Orduan jaten dute gehien, hazteko. Helduek, aldiz, nektarra xurgatuko dute loreetatik bizirauteko gu-

1 *ZOSPEUM VASCONICUM*, IBERIAR PENINTSULAKO BARRASKILO TROGLOBIO TXIKIENA, 1,3 MILIMETROKOA.

2 OPILIOI BAT IKUSI DUGU, ESTALAGMITAREN PUNTAKO ZIRRIKITUETAN EZKUTATU NAHIRIK.

3 KOBAZULO SARRERAKO ARMIARMA IKUSGARRIAK, *META MENARDI* ESPEZIEKOAK.

4 *SCOLIOPTERIX LIBATRIX* TXIMELETAK KOPULAN.

5 FERRA-SAGUZAR HANDI BAT (*RHINOLOPHUS FERRUMEQUINUM*) AURKITU DUGU ZINTZILIK LEIZE BARRUAN.

txieneko energia lortzeko. Espezie gutxi batzuek ez dute hori ere egiten.

Alucita hexadactylari begira gelditu gara aurrera jo aurretik. Dituen hego lumatsuek txundituta utzi gaituzte. Edertasunik harago, alabaina, funtzio zehatz bat betetzeko aproposak direla aipatu digu Novoak: saguzarrak nahasteko moldaerak dira. Tximeletak jaki ona dira saguzarrentzat, baina euren sonarren uhinak *Alucitaren* lumekin talka egiten dutenean, desbideratu egiten dira. Horri esker tximeletak ihes egiteko aukera gehiago izaten du.

GALDUTZAT EMANA ZEN ASUN MINTZAKARA

Kobaren babesean, dena ez dira animaliak. Sandailiko leizearen sarreran landare berezi bat erakutsi digu Novoak: *Urtica membranacea* asuna. Duela 150 urte aipatu zuen lehen aldiz botanikari alemaniar batek Euskal Herriko kostaldean. Orditik sekula ikusi gabea, galdutzat eman zen gurean, aditu talde batek duela bi urte Oñatiko haitzuloen sarreran topatu zuen arte. Izan ere, asun mintzakarak kobazuloen sarrerak ditu gustuko.

Hartzak desagertu egin ziren, baita Arrikruzeko lehoi ezaguna ere, Araotzetik. Oraindik, baina, badira lur azpiko zuloen beharra duten ornodunak. Ferra-saguzar handi bat (*Rhinolophus ferrumequinum*) aurkitu digu zintzilik leize barruan; negua igaro du bertan. Kobetan saguzarrak izan zitezkeela jakinda, flashik gabe ibili gara argazkiak ateratzen egun osoan. Esku-argien eta material berezien laguntza izan digu argazkiak egiteko. Ahalik eta enbarazu gutxien egin nahian irten gara azkar batean eremutik. Amaitu da ibilbidea; Sandailiko kobaren sarrerara jo digu berriro. Lur azpitik atera, eta zerua ikusi digu gure gainean. Gaur aurkituriko animalia txiki eta eder horietako askok sekula ikusiko ez duten zerua. ●



ARRIKRUTZ- OÑATIKO KOBAK



OÑATI
dabilen herria



Egin zure erreserba
943 08 20 00

Anfibio eta narrastiak

INGURUMEN ALDAKETA HANDIEN ADIERAZLE TXIKIAK

Inguruan ditugu, ezkutuan begira, nahiz eta guk ikusi ez. Ez gara ohartzen, baina anfibio eta narrastiek gauza asko dute kontatzeko ingurumenari buruz, eta eurei esker eragin dezakegu kontzientziazioa eta ezagutza. Helburu horrekin izan gara Leurtzako urtegi inguruan, ARGIA aldizkariak Aranzadi Zientzia Elkarteko biologoekin elkarlanean antolatutako bisita gidatuan.

 IÑAKI SANZ-AZKUE

Non gordetzen dira narrastiak hotza egiten duenean? Ba al zenekien Euskal Herrian badirela hankarik gabeko muskerrak? Edota gure inguruan bizi den apo espezie batean arrak direla arrautza ernatuak zaintzen dituztenak? Zergatik dituzte arrabioek kolore deigarriak? Zein da mundu osoan Pirinioetako erreketan baino topatuko ez dugun uhandrea? Horiek eta beste galdera asko erantzun genituen Aranzadi elkarteko hiru kidek maiatzaren 18an Leurtzako urtegi inguruan, goizez eta arratsalde bertako anfibioak eta narrastiak ezagutzeko egin genuen ibilbide gidatuan. ARGIAren mendeurrenaren baitan antolatutako ekimen berezia izan zen.

Ondo pasatzeko eta ikasteko helburuarekin egin genuen txangoa Urrotz eta Beintza-Labaien arteko parajeotan. Apoek eta sugeek, ordea, gehiagorako ere eman zuten. Galdera txikietatik ondorio handiak atera daitezke sarri; hurbilekoari begiratzea baino ez dago mundu mailako galdera askori azalpena emateko. Fokua inguruan ditugun animalia txikietan jarri genuen beraz, eta burua ingurumenean.

EZUSTEKOZ BETERIKO IBILBIDEA

Lehenbiziko ezustekoa ARGIAko irakurleek eman ziguten. Gehienez 35 pertsonako talde bat osatzeko eskatu genien aldizkarikoei. Animaliekin lan egitean baldintza batzuk betetzea beharrezkoa da, eta naturaren eta jendearen hobe beharrez, komeni da multzo oso handitan ez ibiltzea. Ordu gutxian, alabaina, taldea osaturik zegoen jada, eta arratsalderako beste 35 laguneko taldea osatzea erabaki genuen. Hura ere segituan bete zen. 70 pertsonak eman zuten izena ordu gutxian Leurtzako ibilbiderako, txangoak piztu zuen interresaren isla ederra.

Maiatzaren 18a. Euria goitik eta behetik. Eta hotz samar. Izena emana zutenak ordea ez zituen kikildu horrek. Begiak zabal-zabal zituzten buru txikiak, gure hitzak harriduraz entzuten zituzten ile urdintzen hasiak, eta irribarre batekin erantzuten ziguten gurasoak. Talde horrekin nola huts egin!

Aranzadi Zientzia Elkarteko Herpetologia Saileko Ander Izagirre Egaña, Alberto Gosá eta hiruok egin genituen gidari lanak, eta eguna indarrez haste-ko, lehen ezustea eman genien berta-

ratu zirenei: 1980ko hamarkadan Alberto Gosák berak aurkitu zuen lehen aldiz uhandre piriniarra (*Calotriton asper*) Leurtzan. 30 urte geroago, berriro ere bertan zegoela ziurtatu ahal izan genuen. Kume bat eta heldu bat aurkitu genituen urtegiko hormaren azpialdeko erreka harritsu eta itzaltsuan. Baina, zergatik uhandre piriniarra Leurtzan? Zein da Pirinioetako erreken eta Leurtzakoaren arteko antzekotasuna?

Uhandre piriniarra erreka harritsu, ondo oxigenatu eta garbietan bizi da. Heldua denean isatsa mantentzen duen anfibioa da. Adituentzat, beraz, urodeloa. Urtegia eraikitzeak bere bizilekuaren zati bat suntsitu bazuen ere, erreka mantentzen den guneean oraindik ere baldintza onak ditu bizirauteko. Uhandre piriniarra baliatu genuen Leurtzara bertaratutakoei erreken kontserbazioaz eta klima aldatetaz hitz egiteko. Izan ere, uraren temperatura igotzen bada, mantenduko al ditu uhandre piriniarrak egun dituen populazioak? Ala desagertu egingo da? Galdera airean gelditu zen. Hasi ziren lehendabiziko hausnarketak...




1

ESTITXU EIZAGIRRE



2

ESTITXU EIZAGIRRE



3

JUAN LUIS IZETA



4

ESTITXU EIZAGIRRE



5

ESTITXU EIZAGIRRE



6

ANDER IZAGIRRE



7

ANDER IZAGIRRE



8

ANDER IZAGIRRE

LEURTZAKO ESPEZIE BATZUK:

TXANGOAN IKUSI AHAL IZAN GENITUEN:

- 1 UHANDRE PIRINIARRA
- 2 TXANTXIKU AR ARRUNTA, ERNALDUTAKO ARRAUTZAK ZINTZILIK ZERAMATZALA
- 3 ARRABIO ARRUNTA 4 ZIRAUNA
- 5 HORMA-SUGANDILA

ALDIZ, EZKUTUAN MANTENDU ZIREN:

- 6 IPARRALDEKO SUGE LEUNA
- 7 MUSKER BERDEA
- 8 ZUHAITZ-IGEL ARRUNTA



ADITUEN AZALPENAK. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDE ANDER IZAGIRRE –LEHENBIZIKO ARGAZKIAN, ESKUAN UHANDREA DUELA–, ALBERTO GOSÁ –IZAGIRREAREN EZKERREAN– ETA ARTIKULU HONEN EGILEAK EMAN GENIZKIEN ANFIBIO ETA NARRASTIEN INGURUKO AZALPENAK LEURTZAN BILDUTAKOEI.

UHANDRETIK UHANDRERA: GUZTIAK EZ BAITIRA BERDINAK

Ez zen uhandre piriniarra izan, ordea, aurkitu genuen anfibio isatsdun bakarra. Uhandre palmatua (*Lissotriton helveticus*) ikusteko aukera ere izan genuen. Baina, non topa daitezke anfibioak eta narrastiak tenperatura baxuetako egunetan? Ez al dute kanpoko berotasuna behar aktibatuzko? Leurtzan aurkitu genituen animalia gehienak harri eta enbor azpitan aurkitu genituen, babesean. Udaberria ugal garaia da animalia askorentzat, eta ur-puntuetatik gertu daude, arrautzak jartzera joateko; baina hotz egiten badu, babesean hobe. Etxeko txikiaren begiradapean, animalien ezkutalekuak –harri eta enborrak– nola jaso eta utzi erakutsi genuen, eta adituek egiteko lana dela adierazi. Harri bakoitzak bere lekua du, bere funtzioa betetzen du ingurunean. Harriak jasotzen bezala, zegoen moduan uzten ere ikasi behar da.

Uhandre palmatu arrak bizkarraldean gandar txikia garatzen du ugal garaian; hori entzutean harrituta gelditu baziren batzuk, ikustekoa izan zen txantxiku arrunta (*Alytes obstetricans*) aurkitzean begiak nola zabaldu zituzten. Izan ere, Europako aporik zaharrena badu zer kontatua: atzeko hanketan zintzilik eramaten ditu ernaldutako arrautzak. Leurtzan ziren askoren harri durarako, gainera, arra izaten da es-

pezie horretan arrautzen arduraduna, zaintzailea. Egon zen esan zuenik gizakiak (gizonek, alegia) horren eredu hartu beharko lukeela... naturak askotan erakusten baitigu dena ez dela gizakiaren begietatik begiratu behar. Ingurumena askoz anitzagoa da.

Anfibioena da munduko espezierik mehatxatuena. Arnasa hartzen du azaletik; leuna da hura, zeharkatzeko erraza, eta pestizidek, kutsadurak, klima aldaketak eta gainerako faktoreek nabarmen eragiten diete.

Txantxikuaren txikitasunaz ez ezik, haren ahultasunen berri ere eman behar izan genuen zoritxarrez. European babestuta dagoen espezie honek populazio ederrak ditu Euskal Herrian. Ez du itxura batean desagertzeko mehatxu maila nabarmenik oraintxe, baina gure inguruan kontrako pentsatzeko arrazoiak ematen dituzten gertaerak ari dira izaten. Madrilgo adibidea ja-

rri zuen Alberto Gosák. Bertan, klima aldaketa dela eta, gurean gelditzeko aukera egin duen onddo batek txantxikuaren populazio oso bat suntsitu zuen aste gutxian. Azalean sartu eta animalia hiltzen du. Onddo hori aurkitu da gure mendietan eta, hortaz, tentuz begiratu beharko diogu etorkizunari.

Ibilbide gidatuan parte hartu zutenei argi azaldu zitzairen momentu horretan aurrean zuten ornodun taldea, anfibioena, munduko mehatxatuena da, eta azken urteetan gainbehera global garbia jasaten ari da. Espezie horiek azaletik arnasa hartzeko duten gaitasunak, eragiten du azala leuna eta zeharkatzeko erraza izatea. Inguruan gertatzen diren aldaketek (herbizidek, pestizidek, kutsadurak, klima aldaketak...) zuzenean eragiten diete. Horrek egiten du, bestalde, animalia txiki hauek gure ingurunearen bioadierazle bikainak izatea. Gure naturaren osasunari neurria hartu nahi badiogu, sarriago begiratu beharko diegu anfibioei. Eurak dira aldaketa sentituko duten lehenak, baita nabarituko dutenak ere, zoritxarrez.

ERREALITATETIK KONDAIRETARA: APOAK ETA ARRABIOAK

Txantxiku arruntaz gain, ikusi genuen apo gehiago. Apo arruntak (*Bufo spinosus*) ere egin zuen bere agerraldia. Harri azpian, lurraren barruko zulo batean



kiribilduta zegoen, bere begi gorri biziak guri so zituela. Aitzakia ederra izan zen hitz egiteko animalien migrazioaz, ugaltzeko estrategiez, bertako bi apoen arteko ezberdintasunez... eta animalion ospe ilunaz. Izan ere, nork ez du sekula entzun apoek pozoia dutela, edota begietara pixa egiten dutela? Euskal kulturaren eta kanpokoetan dauden kondaira eta usteez zabaldu izan dituzte halakoak...

Kondairak aipatuta, nola ahaztu eguna amaitzear zela agertu zitzaigun espezieia: arrabio arrunta (*Salamandra salamandra*), suarekin, heriotzarekin eta infernuarekin lotu izan den anfibioa. Mantso, lasai, ziurtasun osoz zihoan bere kolore hori eta beltzeko bizkar maratuarekin basora bidean. Momentu gozagarria izan zen.

ETA NARRASTIAK? NON ZIREN LEURTZAKO NARRASTIAK?

Ibilbide aurreko eguna ere euritsua eta hotza izan zela ikusita, narrastiak ikusteko esperantzak txikia behar zuela aurrreratu genien gerturatutakoei. Badira, ordea, zeru lainotuaren azpian ere gorputza martxan jartzeko adina bero biltzen dutenak, Euskal Herrian aurkituko dugun hankarik gabeko muskerra adibidez, zirauna alegia. Nola ba? Zirauna (*Anguis fragilis*) ez al da suge mota bat?

Ziraunaren gorputzak sugeekiko duen antzekotasunak nahasten gaitu as-

kotan, baina ondo behatuta, muskerren taldeko animalia dela ohartuko gara. Sugeek ez bezala, azpialdean dituen ezkatat lerro bakarrean baino gehiagotan ditu banatuak, eta betazalak ditu begiak estaltzeko. Irakurleari arreta gehien daituko diona, baina, sugandilek bezala isatsa askatzeko gaitasuna dutela da. Hau da, isatsa galduz gero, berriro sortu dezake ziraunak, sugeek ez bezala.

Harri azpitan azaldu ziren ziraun arra, emea, kumea... eta guztiak ezberdintzeko aukera izan genuen. Leku bertsuetan topatu genituen ere horma-sugandilak (*Podarcis muralis*). Euskal Herriko gainontzeko sugandilekin duten ezberdintasuna azaldu ostean, ugaltzeko moduz aritu ginen. Izan ere, harri azpitan aurkitu genituen sugandilon arrautza txikiak. Horiek hiltzerik nahi ez badugu, bake santuan utzi behar dira, ukitu ere ez. Eguteren zeuden jarriak, harri azpialde hezeetan. Ez kasualitatez, horma-sugandilak ondo asko dakielako non jarri bere geneen etorkizuna bermatuko duten arrautzak.

Ibilbidean zehar begiak eskala txikian izan genituen jarriak. Belarriak erne, burmuina piztuta eta gogoetarako ideiak airean zebiltzala. Aurkituriko animalia txiki horiengan irakurri ahal izan genituen gure ingurura maiz iristen zaizkigun klima aldaketa, eredu jasangarriak eta biodibertsitatea bezalako hitz potoloak. ●



LIZARRA KANPINA

LIZARRA (NAFARROA)

☎ 948 55 17 33

www.campinglizarra.com

saiazgetaria
HOTELA



ROKE DEUNA 25
20808 GETARIA (GIPUZKOA)
Tel.: 943 14 01 43
info@saiazgetaria.com



"Gure borrokan sinesten dutenek babesak eskaini beharko ligukete, ez garaile aterako garenaren bermea eskatu"

Geni Gómez López, Nikaraguako ekintzaile feminista

Madriilen jaioa da Geni Gómez López, baina 90eko hamarkadan Nikaraguara jo eta han eman ditu 27 urte. Ekintzaile feminista, Articulación Feminista de Nicaragua eta Red de Mujeres de Matagalpa taldeetako kidea da. Nikaraguako krisi politikoak eztanda egin eta hiru hilabetera, Espainiara bidaiatu zuen, familia bisitatzera. Bueltatuz gero atxilotua izatearen beldurrez, Madriilen geratzea erabaki du. Segurtasun distantzia horretatik dihardu Nikaraguako egoeraren berri ezagutzera ematen. Euskal Herrira egin duen bisitaldia aprobetxatu dugu berarekin hitz egiteko.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

2018ko uztailean Nikaragutatik abiatu eta oraindino ez zara itzuli. Esperotakoa baino gehiago luzatu zaizu Madrilera bidiaia.

Ni ez nintzen geratzeko asmoarekin etorri, baina buelta egitekoa nintzela hango adiskideek esan zidaten egoera oso ezegonkorra zela, atzeratzeko pixka bat itzulera. Hilabete itxarotea erabaki nuen, baina egoerak ez zuen hobera egin, eta hemen nago oraindik. Gainera, Nikaraguan errepresio olatu bat bizi dugunez, garrantzitsua bilakatu da gertatzen ari dena herrialdetik kanpo salatu duten ahotsak izatea.

Nikaraguako krisi politikoak iazko apirilean egin zuen eztanda, baina ondorioztatu dezaket gatazkak denboran atzerago duela jatorria.

Nikaraguan diktadura ari zen eratzen. 2007an Daniel Ortégaren Gobernuak boterera bueltatu zen, iraultzaren bigarren zatia beteko zuela promes eginez. Gobernuak bere burua ezkerreko eta an-

ti-inperialistatzat errebindikatu zuen, baina egiatan guzti horrekin kontraesankorra den politika burutu du.

Mugimengu feminista aspalditik zeterren norabide aldaketa hori kritikatzeko, ezta?

Nikaraguako feminismoak denbora dezente darama Fronte Sandinistaren norabidearekiko kritikiko izaten, batez ere 1998an Ortégaren alabaorde Zoilamérica Narváezek aitaordearengandik jasandako abusu sexualak salatuta zituenetik. Ostean etorri zen, estatua eta instituzioen gaineko kontrola elkarbanatzeko asmoz, Ortégak Alderdi Liberal Konstituzionalista eskuindarreko Arnaldo Alemánekin egindako paktua. Hori gutxi ez, eta 2006ko hauteskundeetan aurretik, abortuaren penalizazioaren bitartez, eliza kontserbadoreenekin —katolikoak zein ebanjelikoak— egin zuen paktua. Penalizazio horrek indarrean dirau, eta emakumeen eskubideen kontra egiten duten diskurtso eta politikari eman die

bide. Guzti honekin batera, herrialdearen funtzionamendu demokratikoan atzerapausoak eman dira: gobernuak estatuaren boterean gainean duen kontrola areagotuz joan da, erabatekoa izan arte. Dena pasa da alderdiaren kontrolpean egotera, eta errepresio giroa geroz eta handiagoa da. Guzti honen aurrean jendartea nahiko desmobilizaturik zegoen, bere salaketekin kalean mantendu izan den mugimendu feminista salbu.

Apirileko matxinadetan, aldiz, jendartereko sektore askok parte hartu zuen. Jendartea mobilizatuz joan den seinale.

2011n, gobernuak Ozeanoartereko kanalaren mega-proiektua onartu zuen, eta beronen eraikuntza lanak Txinako enpresa bati esleitu. Horren aurrean, bereziki kanalak kaltetuko zituen komunitateetako norbanakoek osatutako nekazarien mugimendu bat hasi zen eratzen, eta honen ere gobernuaren errepresioa pairatu zuen. Ondoeza pilatzen zihoan. Apirilean





RED DE MUJERES DE MATA GALPA

"Nikaragua dolu-aldian dago", irakurri daiteke errepresioak hildakoak oroitzen dituen pankartan.

Indio Maíz biosferako erreserba batean jasotako sute batek ere protestak abiarazi zituen, jakina baita nekazaritzara bideratutako lurren inbasioa eta trafikoa ematen ari dela. Hau gutxi ez, eta aste gutxiren bueltan jubilatuen pentsioak jeitsi eta kotizazioak igotzen zituen gizarte-segurantzako erreforma bat onartu zuten, protestak eraginez. Protesta hauek bortizki erreprimitu zituzten, eta errepresio horrek jende gehiago bultzatu zuen protestetan parte hartzera. Protestak areagotu ahala, errepresioa ere areagotu egin zen, eta hilketak hasi ziren ematen: lehendabiziko bizpahiru asteetan hogeitik gora ziren hildakoak, ia denak gazteak. Hilketok ezandarazi zuten egoera, protestak herrialde guztian zehar hedatzea eraginez. Errepresio eta bortizkeria guzti hori tarteko, gizarte-segurantzaren karira sortutako gatazka zerbait handiagoan bilakatu eta jendartearen eskakizuna aldatu zen. Gizarte-segurantza erreforma erretiratzea eskatzetik [gobernuak gerora erretiratatu zuena], Ortegaren Gobernuak agintea uztea eskatzera pasa zen jendea. Ordurako herriak zera nahi zuen: batetik, errepre-

sioaren biktimentzat justizia; eta bestetik, hauteskunde plural, libre eta gardena bermatuko dituen demokratizazio prozesu bat abiatzea. Iazko apirilean egin zuen eztanda guzti honek, eta gaur gaurkoz gatazkak bere horretan dirau.



**"Giza Eskubideen
Nikaraguako Zentroaren
datuen arabera, 326
dira hildakoak, baina
badira hildakoak 500etik
gora direla dioten giza
eskubideen aldeko
erakundeak"**

Zein da egoera orain?

Iazko apiriletik uztaila hasiera bitartean protestak izan ziren kalean, baina uztailan errepresioa indartu zuen gobernuak, armak eskuan protesta publikoak

etetea erabaki baitzuen. Hildako andana utziaz bidean, helburua betetzea lortu eta estatu polizial bat ezarri zuen, zeinetan ezinezkoa den inolako mobilizaziorik egitea. Protesta egiten ahalegintzen den jendea atxilotu egiten dute, berauen kontrako prozedura judiziala abiatuz gehienetan. Ildo horretan, uztailan lege erreforma bat egin zuten, gobernuarekin kritikoa den ezein ekintza terroristotzat edo terrorismoaren finantzaketatzat joatzea ahalbidetzen duena. Dena da terrorismoa.

Itzelak dira errepresioak utzitako biktimen zifrak: Giza Eskubideen Nikaraguako Zentroaren datuen arabera, 326 dira hildakoak, baina badira hildakoak 500etik gora direla dioten giza eskubideen aldeko erakundeak.

Amnistia Internazionalak txosten bat atera zuen, Nikaraguako errepresio estratergiez. "Hiltzera tirokatuz" du izena. Titulu hori darama, protestetan gertatutako hilketak eredu berari jarraitzen ziotelako: buruan, lepoan eta toraxean tirokatu zituzten biktima guztiak. Hiltzera tirokatzen zuten, eta horrekin ba-

tera gobernuak zaurituak ez artatzeko agindua eman zien ospitale publikoei. Informean dokumentatuta geratu denez, errepresioa bermatzeko xedez estatu mailako koordinazio bat eman da, eta instituzioak honen zerbitzura aritu dira: osasun sistema, sistema judiziala, Fiskaltza, ... baita hezkuntza sistema ere, ikasleak kontrolatuz eta gobernuak babesteko erabiliz. Institutio oro erreprezioaren zerbitzura aritu da. Ondorioz, momentu hauetan justizia eskaria ezin dezake konpondu sistema judizialak.

Ortegak, baina, Nikaraguako egoera guztiz normala dela dio.

Kaleko mobilizazioak galaraziz, gobernuak normaltasun itxura eman nahi du. Beren diskurtsoa da herriaren altxamendua kanpotik antolatutako estatu kolpe saiakera izan dela, AEBek eta indar inperialistek finantzatutakoa. Estatu kolpea desarmatu dutela eta dagoneko normaltasuna dela nagusi diote.

Beren diskurtsoa etengabe aldatu dute: hasiera batean dena ukatu zuten; hildakoak gezurtatzea ezinezko bilakatu zitzaizanean, hilketak protestan ari zen jendeari leporatu zizkieten; paramilitarren presentzia salatu zenean zein ziren ez zekitelako adierazi zuten, kolpistak zirela iradokiz; orain gutxi berriaz, polizia buru batek esan du beren lana isilpean egiten ari zirela zirela.

Elizarekin paktuak, abortuaren penalizazioa, ... burututako politikek emakumeen eskubideei dagokienez atzerapausoak ekarri dituztela pentsatu daiteke.

Alde batetik, emakumez hitz egiten dute eremu sozialeko protagonista eta politika publiko askoren jomuga bagina bezala, baina era berean ikusmolde erlijiosoekin nahasitako diskurtso oso kontserbadore eta familista batez, zeinak feminismoa etsaia bilakatzen duen. Gobernuak feminismoa emakume nikaraguarrentzat kaltegarria den influentzia atzeritartzat aurkezten du. Ortegarekin atzerapauso ikaragarria eman da indarkeria matxistaren aurkako politiken alorrean.

Zein da momentuotan feministok daukazuen egitekoa?

Hiritarren matxinadaren parte gara, eta uste dut oso ekarpen garrantzitsua egin dugula ondoko ideia helarazten: borrokak biolentzia izan beharrik ez

duela. Horrez gain, autozainketatik borrokatu beharraren ideia ere mahai-gaineratu dugu, ulertzeraz emanez kontua ez dela arriskuan jarri eta bizitza ematea, baizik eta duinki bizitzeagatik borrokatzea. Arrastaka genekarren kultura politiko heroiko eta militarista aldatzen lagundu dugu: 80ko eta 90eko hamarkadetako "Aberri librea ala hil" lema, "Aberri librea bizitzeko" lemagatik aldatu da. Aldaketa kultural esanguratsua dela deritzogu.



"Badago sektore bat ez duena kontsideratzen nikaraguarrok badugula gaitasuna errealtatea analizatu eta geure kriterioaren arabera jarduteko"

Badago inperialismoaren txotxongilotzat jo eta Venezuelako opositorrekin alderatzen zaituztenik.

Hala da, badago sektore bat ez duena kontsideratzen nikaraguarrok badugula gaitasuna errealtatea analizatu eta geure kriterioaren arabera jarduteko. Uste dut errespetu falta nabarmena eta jarrera kolonialista erakusten dutela. Jende horrek behatu, ezagutu eta entzun beharrean, alde aurretik eraturako marko baten arabera aztertzen du errealtatea. Guk ez dugu ukatuko AEBek Nikaragua beren agendan dutenik eta egoera honen bitartez ahalik eta probetxu gehien ateratzen saiatuko direnik. Baina matxinada hau ez da antolatu Nikaragutatik kanpo, herrian bertan sortu zen, eta gazteek zerikusi handia izan dute herrialde guztia mobilizatzeko orduan.

Nikaraguako herriak beste behin erakutsi du 70eko eta 80ko hamarkadetan erakutsitakoa: luzaz jasan dezakeela, baina ez denbora osoz. Somozaren kontra borrokatu zuen jendeak, iraultzan parte hartu zuten pertsonak, matxinada honetan parte hartu dute. Somozaren diktaduraren kontrako borrokan gertatutako hainbat kontu errepikatu direla sentitzea oso esanguratsua izan da.

Klase dirudunetakoak izatea ere leporatzen dizuete.

Hori oso erraz gezurtatzen da: nolatan beteko ziren kaleak dirudunekin? Nikaraguako errealtatea dena izanda, estatistikoki ezinezkoa da. Behatu diezaietela presoek, kartzela herrialdearen errealtatearen isla baita: baliabide urriko jende txiroa da nagusi.

Hurbildu, behatu, entzun eta aurreiritziak alde batera utzi beharko lituzke halakoak leporatzen dizkigunak. Onartu behar dute gauzak aldatu egiten direla, eboluzioa edo inboluzioa izan dezaketela, eta egungo Fronte Sandinistak 80ko hamarkadakoarekin zerikusirik ez duela.

Aldaketa posible batek eskuineko gobernu bat ekarri dezakeenaren beldurra omen dute zenbaitzuek.

Hala diote. Tamainako sarraski baten aurrean, uste dut berdin dela ezkertiarra ala eskuindarra den gobernuak, ezin daiteke inolaz justifikatu zigorgabeki jendea hil eta kartzelaraztea. Eta gainera, Fronte Sandinista ez da ezkertiarra, ez duelako ezkerreko politika egiten: izen bat dauka, Fronte Sandinista de Liberación Nacional (Askapen Nazionalerako Fronte Sandinista), bere garaian sigla horien esanahiarekin bat egin zuena; eta kolore eta sinbolo batzuk ere baditu, iraganarekin lotura egiten dutenak. Baina gobernuan emandako hamabi urte hauetako praktikaren bidez erakutsi du bere politika ekonomikoa neoliberala eta ekstraktibista dela, diskurtsoz anti-inperialista izan arren praktikan kanpoko inbertsoreei eskrupulorik gabe eskura ematen diela herrialdea, eta alor sozial eta kulturean oso kontserbadorea dela.

Zer nolako gobernu izango dugun trantsizio baten ostean? Ba ez dakigu. Baina eskuineko gobernu bat ekiditeko hauteskundeak bertan behera uztea justifikaezina litzateke. Jendea bere herrialdean hala jokatzeko prest baldin badago isilduko naiz, eta denok hartuko dugu bide hori. Baina ez, hemen kontua da jendeak eskatzen digula Nikaraguan daukagun egoerari eustea, gaiztoagoak izan daitezkeen batzuen balizko etorrera ekiditeko. Ezerk ez du ziurtatzen etorri daitezkeena indar progresista bat denik, baina horretan sinesten dugunok horren alde borrokatuko dugu. Gure borrokan sinisten dutenek babesa eskaini beharko ligukete, ez garaile aterako garenaren bermea eskatu. Ezin dezake inork hala korik eskaini. ●

Gure Zirkua

Abenturaren bigarren kapitulua

Iker Galartzak dio “lehenengo euskal zirku ibiltaria” dela. Lehenengo karpa euskaraz, alegia. Argi baitu Gure Zirkua baino lehen, zirkuan ibili direla eta badirela euskaldunak lanean. Haiei errespetua zor zaiela uste du. Bidaia erromantikoa, eta apustua, 2018ko udan hasi zen. Arrakasta izan zuenez, bigarren udari heldu diote.

ONINTZA IRURETA AZKUNE
GURE ZIRKUA

Autoan doala egin diogu elkarriketa Iker Galartza Gure Zirkuaen sortzaileari. Hamabost bat egunez Gasteizen egotekoak dira eta hara bidean harrapatu dugu. Iaz heldu ez ziren tokietara iristeko asmoa al duten galdetu diogu, Araba bisitatzeko asmoa adibidez. Halako erantzuna bota digu Galartzak: “Etxean haserretuko zaizkigu. Galdetzen digute Tolosaldean eta Goierriin noiz arituko garen. Gure Zirkua Arabara joan nahi du, Iruñera (hauteskundeen emaitzak ikusita ez dakit lortuko dugun), Baztan aldera, Iparraldera. ‘Nahi’ baino, esango nuke ‘behar’ duela”. Urrunago ere badu begirada eta 2020an pentsatzen hasita, adibidez, Barakaldo dator kio burura. Ez du uste hainbat tokitara euskaraz ari den zirkuarekin joatea erromantizismoa denik, baizik eta erronka eta apustua. 2019ko egutegia eskatu diogu, nondik nora ibiliko diren, eta ez dugu erantzun zehatzik jaso. Arrakastaren arabera egun gehiago edo gutxiago egingo dituzte batean eta bestean. Bestalde, oraindik lotu gabeko herriak ere landu nahi dituzte. Izan ere, iaz lau hilabetez ibili ziren Euskal Herrian aurrera eta atzera eta aurtien sei hilabetera luzatzeko gogoia dute, udazken-neguraino.

“DENA EUSKARAZ AL DA?”

Zirkua euskaraz baita, eta hori nobedadea dugu gurean. Jendeak nola hartu duen galdetu diogu eta Galartzak esan digu denetarik entzun dutela, euskaraz delako poz-pezik direnak, euskaraz izatea eragozpenetz hartu ez dutenak, eta gaztelaniaz nahiagoko luketenak: “Dena euskaraz izango al da?”, “Ez du-




zue gaztelaniaz egingo?”. Hizkuntza dela tarteko halako zalantzak dituen jendea erakartzen saiatzen dira Gure Zirkuko kideak eta Galartzak gogorazi du zirkua mundu guztiarentzat dela, “zirkuan hitz egiten dugu, baina hitzik erabiltzen ez den ikuskizunak ere bada”. Iaz Gorkizen ikus-entzule bereziak izan zituzten, udatiar katalanak

eta ingelesak, besteak beste. Euskaraz zela jakin arren karpapean izan ziren eta bukatutakoan “zer moduz?” galde-tu zieten. Haien erantzuna: “Oso ondo, sinplea, umila, betiko zirkoa, haurtzarora itzuli gara”.

Dozena bat lagunek osatzen du Gure Zirkua. Beste modu batez esanda, hamabi dira zirkuko ikuskizunetan parte hartzen dutenak. Denak euskaldunak. Iazko talde bera. Asteburuetan hamabikoa 25 laguneko talde bihurtzen da. Dauden tokian daudela senideekin biltzen dira, elkar ikusi ahal izateko batetik, eta bestetik, nola ez, haiek lanean jartzen dituzte; otorduak prestatzen, garbiketan... Galartzak gustukoago du esatea 25 lagun dabilzala Gure Zirkuaen bueltan.

Harreraren arabera jarraituko du Gure Zirkua Euskal Herriko txokoak zapaltzen. Iazko marka: lau hilabete, hamabi herri, 97 emanaldi eta 25.000 ikusle. ●

Begetariano operazioa



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Porton Down (Ingalaterra), 1942ko udaberria. Britainiar gobernuak bertan zeuzkan laborategietan, Paul Fildes biologoak Winston Churchill lehen ministroaren agindu zuzena jaso zuen: Alemaniaren aurkako eraso biologikoa prestatu behar zen. Alemaniarrak ia Europa osoa mendean hartua zuten eta, Britainia Handia erasotzeko zorian zedenez, neurri etsiak hartu behar zirela erabaki zuen lehen ministroak.

Lehen Mundu Gerran arma biologikoak ikertzeko sortutako gunean, Fildesen taldeak Alemania antraxez kutsatzeko plana prestatu zuten; Churchillek berak iradoki omen zuen antraxa erabiltzea. Bakterioaz kutsatutako lihozko pastelak hegazkinen bidez botako zituzten Alemanian; ganadua kutsatuta, elikagai eskasiak arerioa ahulduko zuen. *Begetariano operazioa* deitu zioten, umore beltzez, erasoak alemaniarrek barazkijale bihurtuko zituela iradokiz.

Londresko xaboi fabrika batean 5 milioi pastelxo ekoitzi zituzten eta arma berriaren eraginkortasuna Eskoziako Guinard uhartean frogatu zuten. Uhartea pribatua gerra amaituta 500 libren truke berreskuratzeko aukera izango zutela esan zieten jabeei. 1943an 50 ardi utzi zituzten uhartean eta antrax esporek hiru egunetan hil zituzten denak. Gorpuak labar batetik behera bota eta, dinamita detonatuta, harriz estaltzen saiatu ziren.



WINSTON CHURCHILL (EZKERREAN) ENBAXADORE ALIATUEN BAZKARIAN, 1941EKO IRAILEAN. HILABETE BATZUK GEROAGO 'BEGETARIANO OPERAZIOA' PRESTATZEKO AGINDUA EMANGO ZUEN.

Baina gutxienez ardi kutsatu bat kostalderaino eraman zuen itsasoak. Beste 50 ardi inguru, zazpi behi, bi zaldi, hiru katu eta txakur bat hil omen ziren; gobernuak isilpean ordaindu zituen kalte-ordainak.

Eta, hala ere, froga arrakastatzat jo zuten. 1944ko urte hasieran *Begetariano operazioa* prest zegoen, Churchillek abiarazteko agindua emango zai. Lehen ministroak baldintza bat jarri omen zuen horretarako: aurretik alemaniarrek eraso biologikoa erabiltzea. Baina, azkenenean, beste arrazoi batek utzi zuen bertan behera operazioa: aliatuak gerra irabazten hasi ziren. Pastel guztiak erraustu zituzten gerra amaitu eta gutxira.

Gauzatuz gero, operazioak ez zuten soilik alemaniarren dieta aldatuko. Milioika hildako eragingo zituen Alemaniako mugetatik kanpo ere eta Europako zati handi batean bizitza eragotziko zuten urte luzez.

Guinard uhartean garbiketa lanak asko luzatu ziren. Besteak beste, 280 tona formaldehido erabili zituzten bi kilometro koadro eskaseko lur zatitxo lehengoratzeko. Koarentena 1990eko apirilaren 24a arte egon zen indarrean eta, azkenean, maiatzaren lehenean, lehengo jabeen oinordekoek uhartea berreskuratu zuten 500 libren truke. ●

Erromataren ordutegi malgua

Erromatarrek, guk bezala, eguna 24 zatitan banatzen zuten. Baina haientzat, beti, urtaroak gorabehera, egunak 12 ordu irauten zituen eta gauak beste 12. Horregatik, soilik urtean bitan zituzten 60 minutuko orduak: udaberriko eta udazkeneko ekinokzioetan, gauak eta egunak iraupen bera duten egunetan. Uda solstizioan, aldiz, eguzki-orduek 75

minutu inguru irauten zuten eta gaueko ordu laburrak 45 minutura baino ez ziren iristen; eta neguko solstizioan, alderantziz. Hala, udako solstizioan eguneko *hora prima* gure goizaldeko 04:27ean hasten zen eta *duodecima* arratsaldeko 19:33ean amaitu. Puntuatsuna, beraz, ez zen erromatarren dohainetako bat; beharrik ere ez zuten. ●



BEARRI-KARATSA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Bearri-karatsak osagai pozoitsu ugari du. Garai batean mozkorraldiari buelta ematen hasteko goragalea eragiteko noiznahi erabiltzen zen.

Bearri-karats esaten diogu hemen belar bati, *Asarum europaeum*. Lurretik binaka atera eta gehienez ere arrabete luzatuko den hostoak belarri itxura ederra duela ezin uka. Era berean, kirats edo karats nabarmena hedatzen du: mina, kanforra gogorarazten duena, ia okaztagarria. Izen zientifikoak ere antzeko esanahia du: *Asarum* grekoko *asê*-tik omen dator, nazka eta okanahia edo goragalea adierazteko hitzetik. Loreak intxaur muskatua oroitazten du. Usain dantza horrek agian ekarri dio baita ere basakara izena, basa-akara; itxuraz, akara usaintsuagatik, *Valeriana celtica*.

Bearri-karatsaren lorea ia ikusezina da, ttiki-ttikia eta ez da tentetzen, lurra- ren azalean garatzen da, etzanda bezala. Euliek, batez ere onddoen euliek ernalduko dute, horientzako izango du kirats

berezi hori, haien erakargarri. Gero, inurriek baliatuko dituzte bere haziak eta hedatu. Aietak ditu, tarteka lur-azalean tarteka lurpean luzatzen diren sustrai lodikoteak, horixe da landare honek osatzen dituen multzo ikusgarrien arrazoia; batik bat, karaitza oinarri duten lurretako basoetan.

Bearri-karatsak osagai pozoitsu ugari du. Laguna hiltzeko oso gaineko gaino- sia behar da, baina gorputzaldi oso txarra igaroaraz dezake. Garai batean mozkorraldiari buelta ematen hasteko goragalea eragiteko noiznahi erabiltzen zen. Era berean alkoholzalekeriari aurre egiteko ere erremedio ona zen. Tabako hautsari ere nahastu izan zaio. Gazteleraz tabernako belarra esaten diote, "*yerba tabernera*", baita "*nardo silvestre*" ere, basakara haren pareko. Frantsesez ere tankeratsu,

finxeago, hizkuntza horretan ohi den bezala, "*cabaret*" esaten diote. Garai batean, tabernetan belarra prest edukitzen omen zuten bezeroren batek etxera bueltatu aurretik mozkorraren dolda itxuratzeko bidean jarri nahi izanez gero.

Bearri-karatsarekin edari biziak eta likoreak egin izan dira. Agian horregatik gazteleraz "*oreja de fraile*" ere esaten zaio landareari, izan ere fraideen sektek ikaragarritzko joera izan dute alkohol edari horiek egiteko.

Bearri-karatsaren ekonomia zirkularreko negozio borobila: "fraidearen belarria" izeneko tabernan bearri-karatsarekin egindako likorea eta tabako hautsa saldu. Ondoren, bezeroari bearri-karatsaren ura eskaini, mozkorraldia doitzeko. Borobila, frantsesez "*rondelle*" ere esaten diote. ●

JOSE MARI MUNARRIZ MARTURET, LA CHURTA

"NIRE FILOSOFIAREKIN GUZTIZ BAT EGITEN DU ERRIGORAK"



**GARAZI
ZABALETA**

Udaberriko Errigoraren kanpaina pasatu berria den honetan eman dituzte lehen datuak: 93.000 litro olio, 207.000 kontserba ontzi eta 11.000 kilo arroz eskatu dira Euskal Herri osoan. Ez dira emaitza makalak. Baina, nortzuk daude Errigoraren atzean? Horietako bat topatu genuen furgonetarekin kontserba kutxak herriz-herriz banatzen, eta elkarrizketa egiteko aprobetxatu genuen. Jose Mari Munarriz Marturet, La Churtako jabea da bera. Zainzuriak, tomate frijitua, edota pikillo piper ekologikoak saltzen ditu Errigora bidez.

Noiz batu zinen Errigoraren proiektura?

Hasieratik egin genuen bat Errigorarekin. Oker ez banago, Angel Iturri eta biok izan ginen lehenak, bospasei urte daramatzagu elkarlanean jada.

Aspalditik daukazu martxan La Churta enpresa txiki hau?

Conservas Allo 1982an sortu zuten herriko ekoizle autonomoek, zainzuriak ontziratzen hasteko. Ni 1984an sartu nintzen, eta hasieran autokontsumorako egiten bagenuen ere, 1989an produktuak merkaturatzeari ekin genion. Zenbait urtetan aldaketak izan ondoren, azkenean hiru ekoizleren artean ENS bat -Eraldaketarako Nekazaritza Sozietatea- sortu eta aurrera egin genuen.

Eredu ekologikoan ekoizteko hautua egin zenuen.

Bai. 90eko hamarkadaren hasieran mugimendu ekologisten bueltan nabilen eta orduan hasi nintzen kontzientzia hartzen. Erabaki nuen nire pentsatzeko moduak nire lanean ere islada izan behar zuela, eta Katalunian ekoizpen ekologikoan ziharduten zenbaiten laguntzarekin hemen ere kontua mugitzen hasi ginen. Hasieran hi-



tzaldiak egiten genituen eta jendea batzea zen asmoa, baita beste ekoizleekin hitz egitea ere. Zerbait ongi egin izanen genuen, urteotan bilakaera nahiko ona izan du-eta!

Zerk erakarri zintuen Errigora proiektura?

Egia esan, lehen aldiz ekimena azaldu zidatenean ez nuen oso ongi ulertu, baina gerora, ezagutzen joan nintzen heinean ikusi nuen nire filosofiarekin guztiz egiten zuela bat Errigorak: hurbileko merkaturatzea, produktu lokala baloratu, eta agroekologiaren alde egiten du.

Eta ekoizpenari begira, zer eman dizue?

Hasieran ez ziren kantitate handiak, baina urteotako bilakaeraren ondoren dezente handitu da salmenta, eta guretzat aukera oso ona da. Pentsatzen dut hurrengo urteetan egonkortzen joanen dela, zenbait urtetan eman den jauzia ikaragarria izan baita! Bestetik, Errigoraren bidez ekoizlearen artean lotura ere egin da, elkartzeko gunea da guretzat. ●

EUSKAL HERRIKO AGENDA

EKAINAK 21

GASTEIZ

Errekaleorreko sendabelarrak ezagutzen tailerra.
18:00etan Errekaleorren.

EKAINAK 22

BERMEO

San Juan belarra batzeko irteera.
10:00etan Kabiexen.

EKAINAK 23

URDUÑA

San Juan feria. Foru plazan, baserriko eta artisautzako produktuak, eta ganadua salerosketa. Herri bazkaria. Euskadiko Behi Xarolesen XVII. Lehiaketa.

EKAINAK 26

BILBO

Urola bailarako arte paleolitikoaren aurkikuntza berriak. 19:00etan La Bolsa eraikinean (Pelota kalea 10).

EKAINAK 26

HAZPARNE

Ursua mendira txangoa.
9:30ean plazan.

EKAINAK 27

BILBO

Angolako sukaldaritza tailerra eta afaria. 20:00etan San Frantziskon, Sarean kultur elkartearen.

EKAINAK 30

ZIGOITI

Zaldiaren azoka.

EKAINAK 30

OLAZTI

Mendian euskaraz: Urbasako baso sorgindua ekimena. 10:00etan Urbasako interpretazio etxean.

1968ko abenduaren 29a



KOLDO IZAGIRRE

Hamabi soken oholtzara ausartu zenez geroztik, hogeita zortzi borroka irabazi zituen bata bestearen ondotik, aurkariak K.O. etzanarazita. Basarrik esplikatu zuen bezala, lehia garbian irabaziko lukeenak galdutakoan gertatzen da tongoa, gure mutilak ez zeukan inolako errurik aurrean jartzen zizkietenek “lur jo beharra” baldin bazuten. Harritzekoa ote zen harriak jasotzen halako indar harrigarria erakutsi zuen euskaldunak “haizeak orbela bezala” astintzea ukabilka ausartzen ziztaizkion ergelak?

Boxeoa herri apustu bilakatu genuen.

Urtainek ez zuen *Zeruko Argia*-ren portadarik merezi izan 1970eko martxoan Europako txapela jantzi zuelarik, bai ordea orrialde beteko kronika hiru argazkirekin eta editorial bat osorik.

“Europa aldera zure besaindarra baino zerbait gehiago zabaldu behar duzu”.

“Erakus iezaiozu Europari baduela bere barruan herri txiki bat”.

“Erakus iezaiozu herri hau aintzakotzat hartzen, babesten, zaintzen eta suspertzen”.

Jatortasuna, gure kazetaritzaren gaitz luzea. Alabaina...

“Urtainek egingo du guztion borroka. Gainontzekoak, begira besterik ez”.

Titulua: Urtain, Euskal Herriaren opioa. Egilea: Rikardo Arregi. Non: *Zeruko Argia*-n bertan. ●

ZERUKO ARGIA, 1979


Karlos Argiñanok hedabideetan azaldutako lehen errezeta: Gladys piperrak

MIREN OSA GALDONA

Euskal sukaldaritzaren berria” askorentzat kontzeptu berriena zen garaian hasi zen Karlos Argiñano *Zeruko Argian* errezetak idazten. Bai, irakurleok: hamarkadak igaro arren eguerdi tartean txisteak kontatzen diharduen, bizitzari perrexila jartzen jarraitzen duen, eta han-hemengo enpresa buru bilakatu den zarauztarik ospetsuenak *Zeruko Argian* egin zituen publiko lehen errezetak. Euskal Herrian sukaldaritzaren tradizionalak zein loratzen hasi berria zen ildo abangoardistak erakarrita, irakurleentzat errezetak biltzen hasi ziren Okendo Kaleko erredakzioan. Joxemi Zumalabek eta Elixabete Garmendiak lotu zuten tratua Argiñanoren jatetxean eta 1979ko ekainaren 17ko aldizkarian argitaratu zen Argiñanoren lehen artikulua. Oraintxe duela 40 urte.

Bi aste lehenago, ekainaren 3an, Guardia Zibilak tiroz hil zuen Gladys del Estal ekintzaile ekologista, Tuteran, protesta batean. Gladys del Estal eskaini zizkion artikuluko lehen hitzak zutabegile estreinatu berria zen Argiñanok, asteke errezeta azaldu aurretik: “Sukaldaritzan gabiltzanok ere ezin herrikoi kezketatik at ibili. Honako hontan Gladys del Estal izan dugu lur garbi eta herri libreago baten alde burrukatzeagatik erail digutena. Gladysen homenez bere izena eramango duen jaki berri batekin hasiko gara: hontoekin betetako piper gorriak “Gladys”.

Ekintzaile ekologistaren izena dararama beraz *Zeruko Argiaren* lehen sukalde errezetak, Karlos Argiñanok sinatuta. Zer izango ote du esateko perrexilaren *showmanak*? Galdetu egin beharko zaio! Bitartean, hona Gladysentzat eginiko piper-beteak egiteko azalpena:



Karlos Argiñano 1979an.

“Lau pertsonentzat har itzazu hama-bi piper gorri pikodunetakoak. Hontoak 300 gr, tipulak bi eta baratzuri bi ale. Tipula eta baratzuria txikiturik prejitzen jarri oritu harte. Orduan aintu hontoak puska txikitatu. Gatza bota eta sei edo zortzi minututan, hontoak egin baratean, bertan eduki. Piperrak bete ditugularik irinetan eta arrautz batitutan pasa eta prejitu. Beste ontzi batean taza bat salda berotu. Piper beteak, prejitu ondoren, ontzi hontan sartu eta hamar minutu irakitzen eduki. Baldin eta legorregi gelditzen ba da salda gehiago aintu. Beste alde batetik eskukada bat ogi xehetu baratzuri eta perejil txikituarekin nahasi eta ontzian daukagunaren gainean bota. Bost bat minutu labean sartu eta prest. On egin dezaizula!”. ●

HENDAIAKO X. IRAKURRALDIA

Aldizkariari ahotsa jarri diote

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ziburuko I. euskal liburu eta disko azokan izan diren lagunei deitu diet asteburuko plana zer moduz aterra den galdetzeko. Eguraldi paregabea suertatu zitzairen kostaldean ibiltzeko eta egun polita pasako zutela imajinatu dut. Hendaian harrapatu ditut, irakurraldira joan omen direla-eta. Ziburun erositako liburuekin ezin muga pasa eta akaso horiek irakurtzera joan dira ARGIAkoak Hendaiaara?

“Kaskatu egin al haiz? Batzuetan gehiegi korapilatzen ditun hire burutazioak!”, erantzun dit algaraka lagunak. “Ez neska, Hendaian hamar urte zeramatzenan gai bat hartu eta haren bueltan irakurraldia egiten, gai horren inguruko hainbat testu irakurleen ahotsetan jartzen. Aurten ARGIA izan dun irakurgaia ehungarren urteurrena aitzakia hartuta, eta gu ere egokitutako idatzia irakurtzera joan gaitun”.

Polita izan dela kontatu dit, lauorogei bat lagunek hartu dutela irakurle-papera. Tartean izan dira ARGIAko historiko batzuk (gure etxean ARGIAko mitikoak esango genuke): Asisko Urmenetak Antton Olariaga marraztu du Maitena Urmenetak Olariagari buruzko artikulua irakurri bitartean, Amets Arzallusek Evo Moralesi egindako elkarrizketaren pasarteak irakurri ditu, hirukote enpeinatuak (Josu Landa, Malores Etxeberria eta Joxe Mari Ostolaza) Sustrai Colinak ARGIAren mendeurren jarritako bertsoak abestu dituzte, Lander Arbelaitez Joxe Mari Ostolazari egindako elkarrizketa leitu dute Ostolazaren gertukoek... Musikaz lagunduta ospatu dute X. Irakurraldia, atarian izan baitira Baigorriko gaiteroak



Hendaiaiko X. Irakurraldiaren osteko aperitifa, Akelarre Elkarteak prestatutakoa. ARGIAren *Trantsizioak* erakusketa ikusgai egon zen.

eta amaiera aldera flautak goxatu baitu aretoa. Mikel Asurmendik, Nagore Iratzustabarrenak eta Pello Zubiriak beren atalak nola osatzen dituzten azaldu dute, eta Bego Zuzak gaur egungo ARGIAren antolaketaz hitz egin du.

Hendaian ez dute Ziburun erositako libururik irakurri, argi geratu zait. Baina kontatu didate egun polita izan zela larunbatekoa ere, lehen urtea izanik ez zela jende pilaketarik izan mahaien aurrean, baina ARGIAren estiloan, txikitik eta komunitatean, oso gustura egon zirela Baltsan Elkarteko kideekin eta liburu eta disko artera gerturatutako ARGIAren lagun guztiekin.

ARGIAko lantaldea oso eskertuta dago azken asteetan Lapurdiko kostaldean piztu den giroarekin eta mendeurrenaren ospakizunak mugak gainditzen laguntzeagatik. Esker hitzak dituzte zonalde horretako harpidedunekin harremana sendotzeko aukera ireki dietelako bi ekitaldien antolatzaileek: Baltsan elkarteak eta Akelarre elkarteak. Esker hitzak Ziburuko azokan mahaia jarri zuten argialetxeentzat eta bertaratu ziren kulturzaleentzat. Esker hitzak Hendaian artikulua irakurri zutenentzat. Esker hitzak ARGIA lau haizetara zabaltzen laguntzeagatik. ●

AZOKA
AZOKA.ARGIA.EUS

NOLA DA
MUSUTRUK?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu ARGIA Jendearenentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditza-gun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.



ALBAOLARAKO SARRERAK
MUSUTRUK JARRIKO DEN EGUNA:
Ekainak 27, osteguna, 10:00etan



“Liburuan ez dago txokokeriarik, ezta gorrotatzen dudan kosmopaletismorik ere”

Edu Zelaieta Anta, idazlea

EHUko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean irakaslea. Idazle gisa poesian nabarmendu da. Haur literaturari ere ekin dio azken urteetan. Berriki, Gasteiz eta oro har Arabaren deskribapen esanguratsuak egin ditu *Mundutik mundua / Arabako hitzontzi baten kronikak* (Pamiela) entsegu liburuan. Mundua erretratatu du bertatik bertara.

 MIKEL ASURMENDI
 DANI BLANCO

Nafarroarekin lotutako arabarra zara, gasteiztarra.

Bai. Neurez gasteiztarra naiz, hemen hazia. Zelaieta Anta naiz; Blanco ere bai... Aitaren aldetik Bortzirietako nafarra, Berakoa. Amaren aldetik galiziarra. Gasteizen hezitakoa naiz. Familiako kontuak zirela eta, haurtzaroan Bera aldera joaten ginen, baita Hondarribira ere udaldian. Hala ere, aitak ez zigun euskara transmititu, anaia zaharrenak ordea jaso zuen; Parisen jaioa izan arren, usu joaten zen Berara. Ni baino hamar urte zaharragoa da. 1965ean, frankismo bete-betean, Gasteizera etorri zen gaztelania ikasi gabe, euskaraz besterik ez zekiela. Beste biok erdaraz hazi eta hezi ginen. Aitaren alde-tiko familia euskalduna da, baina ez zuten bereziki kontzientzia euskaltzalea. Beraz, A eredutik pasatu ondotik euskaltegian egon nintzen; gero Euskal Filologia egin nuen; eta azkenik, tesia Baztan-Bidasako euskararen gainean egin nuen.

Mundutik mundua. Arabako hitzontzi baten kronikak izena du zure liburuetan. Gaizki ikusia al dago gaur egun hitzontzi edo kalakaria izatea?

Ez dakit gaizki ikusita dagoen... *Hitzontzi*

tzia ipini diogu liburuari azpiko izenean, hitzontzi baten irudi batekin [azalean ageri dena] jostatu nahi izan dugulako.

Funtsera joanaz, *Hitzontzi*-ren gibelean autoironia dago, ironia zilegi eta sanoena, nork bere buruari barre egitea. Hau da, lehenik eta behin norberak egin diezaiola irri bere buruari, horrek eman baitiezaiokie, akaso, beste batzuei buruz barre egiteko parada. Autoironia asko gustatzen zait genero literario modura, baita egunerokoan erabiltzea ere. Liburuan ironia dago eta ironiaren barruan estimatzen dudana generoa dago: autoironia. Apustu estetiko eta kasik etiko modura bizi dut ironia. Dena dela ere, autoironia alde batera utzita, *hitzontzi-keria*-z galdeturik, interesatzen zait entzuten dakien jendea. Hitz egiten jakitea funtsezkoa da, baina entzuten jakitea arrunt inportantea. Zer da zailago gaurko munduan, hitz egiten edo entzuten jakitea? Nire ustez, zarataz gainezka bizi garen jendarte honetan, gehiago kostatzen zaigu entzutea.

Generoari dagokionez, zer da liburu hau?

Ezinbestean hibrido bat da, nire kasuan

beste hibrido bat. Dirudienez, ez dakit hibridorik ez den beste deus egiten, nire marka da nonbait. Hibridazio horretan, mugaldekotasuna dago [Mugaldekoak proiektu literario-musikala]; haur literaturan ere ari naiz, iaz lehenbiziko liburuak atera nituen, horietako baten izena –fikzioarekin jostatuta– *Amets anfibio*. Oso anfibioa naiz... [Amets izena du bere semeak].

Liburuak hiru atal ditu: *Hitzaurrea*, *Kronikak* eta *Hitzatzea*.

Hitzaurrea-n, irakurlea laguntzeko, artikuluen jatorria kontatzen da, liburua jatorrian artikulua bilduma da, hainbat agerkeritan idatzitakoak, baina berri-dazteko prozesu bat bizi izan dutenak.

Egunkariera-z idatzitako testuetatik eratorritako testuak dira. Nolatan?

Konturatu nintzen interesgarria izan zitekeela jatorrizko testuek ziotena baino zerbait gehiago eskaintzea. Ez gaitezen engaina, hemen Ajuria Enea eta Eusko Legebiltzarra badaude ere, euskarazko plazari dagokionez, Araba periferia da. Kultura aldetik, hainbat mugimendu eta ekimen –indibidual zein kolektibo– in-



teresgarriak izan arren, gehienak eus-kalgintzaren plaza barruan ari direnak, oraindik ere arabartasuna periferikoa da. Orduan, alde horretatik proposamena egiteko zirrikituak ikusi nituen. Arabartasuna hartuta, urte askotako testuak ditut han-hemenka idatzita, batzuk ARGIA-n agertuak. Nola edo hala aukeraketa egin nuen, autopsikoanalisia, alegia zenbatetan idatzi nuen Arabaz, ez modu zentrolean soilik, baizik eta dekoratu gisa ere. Sorpresa hartu nuen, uste baino gehiago ziren. Normala ere bada, gehien ezagutzen dudana Gasteiz eta Araba dira, baita Baztan-Bidasoa ere.

Testuen literariotasuna neurrikoa egin zait, saio txiki oparoa osatu duzu. Nola egiten da hori jatorrizko testuari traiziorik egin gabe?

Lehenbiziko bilaketan 65 artikulua arrantzatu nituen, horietatik batzuk ez zitzaizkidan gehiegi gustatu, beste batzuek ez zuten denboraren muga gainditzen. *Hitzaurrea*-n beltzez agertzen diren lagunen izenak daude, Joxe Carreras da horietako bat eta laguntza eskatu nion. Gasteiztarra da, Euskal Filologia egin zuen, Irlandan bizi da, hau da,

hemendik kanpo. Tarteka etortzen da. Munduan barrera mugitzen denez, testuok pasa nizkion haren irakurketaren berri jakiteko asmoz. Bigarren prozesu batean 50 testu aukeratu nituen. Liburu egituratze horretan, zerbait gehiago



Liburu begirada zabalago batez egina dago, eta horrek ematen du literaturaz hitz egiteko aukera, bizitzaz. Liburu txikia da, baina ezipal askoko enbor modura ikusten dut"

eskaini nahi horretan, jatorrizko testuak neurri bertsukoak izatea erabaki nuen, liburu atmosfera berean sartzeko. Neurriak giro bat eman dezake literaturan. Horretan, kreaiziotik baino gehiago erre-kreaiziotik egin da.

Beste lagun batzuek ere lagundu zaituzte. *Hitzatzea*-n kasu.

Bai. Arabartasunaren dikurtsoa gogoan, babazorroek idaztea nahi nuen, beraz, Karmele Jaiok idatzi du. Konplizitatea eskatu nion. *Hitzatzea* egin du eta anitz gustatu zait, erdiz erdi asmatu du. Nik egunekoaren kronika egin dut, eta berak kronikaren kronika. Primeran biluztu nau. Hala berean, nahi nituen ilustrazio batzuk sartzea. Eneko Ugartek egin ditu, irudi inpresionistak dira, azalekoa barne. Primeran gelditu dira. Ez dira irudi errazak, azaletik hasita, irakurketa berezia eskatzen baitute. Ama Zuriaren plazaz egin duen ilustrazioa zoragarria da. Berean gauden gasteiztarak, selfia, letren eraitea... [liburuko irudia erakusten ari zaigu]. Bistan da, Anakozen Amenabar kazetariaren laguntza ere ezinbestekoa izan da, Arabako *Hitza*-n eta *Alea*-n idazteko emandako aukerarengatik. Babazorroen laguntzaz, hiriaren irudia eta liburu proiektua osatuta geratu dira.

"Poeta izanagatik" zutabegile ona zara. ARGIAko zutabeak lekuko.

Zuk horrela badiozu, ez dut nik ukatuko.



Erraza al da poeta eta zutabegile izatea?

Niretzat bai. Oso naturala da. Areago, ez dakit jakingo ote nuen bestela idazten. Horregatik hibridazioarena: EHU-n gaude, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean... Gertatu zait, ikasle edo irakasle batek edota kritikariren batek poesia egiten ari ote naizen esatea... Edo esatea modu didaktikoan ari naizela, edota kontrakoan ari naizela ere. Ikastolan eta eskalategian ere aritua naiz, irakasle izateko oso enfatikoak naizela esan didate, baina hara, nire ustez irakasle batek hala behar du. Nire izatearen marka da, nonbait. Horrek edozein ofiziotan zailtzen

eta trebatzen nau. Horregatik edo, zutabeak eta poesia idaztea oso naturala zait, areago, ziur naiz elkarri eragiten diotela. Urteak dira ari naizela bietan.

Plazerra emateko idatzi ohi da. Edonola ere, plazer estetikoak baitezpadakoa da.

Erabat ados. Zutabegintzan aritzean kontzientea naiz hala ere, poetaren ajeaz. Aje hori kontzienteki nahiz inkontzienteki hartu dut. Alegia, nola adierazi zutabe batean? Neurria motza baita. Nire uste apalean, neure ekarpena hori izan daiteke. Literatura hori ere bada. Gaia da, noski. Zertaz jardun. Baina neurri batean bada ere berau nola plazaratu:

estiloa, estetika, umorea nola erabili eta gogoeta nola sartu aldi berean.

(...)

Izan ere, lagun literarioa daukat Sandra Cisneros. Literatura txikanoan ezaguna da. *The House on Mango Street* liburua- ren egilea. Hogeita hamabost urte du liburuak, hamar bat urte dira irakurri nuela. Gustatu zitzaidan haren estetika, mugaldekotasuna. Niretzat erreferentzia eta klabea izan da liburu hau ontzeko orduan. Beste lagun literario batzuek ere eman didate klabea, eta horietan lehena Xuan Bello da. Idazle asturiarra. Bere *Historia Universal de Paniceiros* oso esanguratsua da, liburu fragmentarioa da, tamainakoa. Ahozko literatura sartzten du liburuan, poemak eta gogoetak besteak beste. Gauza sinpleak kontatzen ditu: mundu globalizatu honetan "soy de Paniceiros, soy del mundo" dio.

Eta zuk?

Ni gauza bera egiten saiatzen naiz. Nondik ikusten dudan mundua azkeneko urte hauetan, XXI. mendean, alegia? Bada, Salburua auzotik, bertan bizi naiz eta [alde zaharreen jaioa da bera]. Salburutik Olarizu ikusten dugu. Ikusiko dugu zer ematen duen etorkizunean nortasuna hartzen hasia den auzo honek. Salburutik -mundutik- mundua ikusten dugu, Olarizu mendia, nahasketa multikulturala eta nerabazarora bidean diren haurrak.

Eta zer azpimarratuko zenuke, besteak beste?

Bada, bitxikeria gisa, metaforarik erabili gabe, *Xuxen*-ek Salburua eta Olarizu, biak gorritz azpimarratzen dituela, biak ala biak izen euskaldunak izanagatik ere. Horrek ematen du periferiaren berri. Bi hitzak akatsak balira ageri dira ordenagailuan, munduaren ertzean daudelako nonbait. Ez dut deus *Xuxen* programatu dutenen aurka, jakina, hori egoera baten ispilua dela erran nahi dut.

Saio txiki da, baina ertz askotarikoa.

Liburu honek hari asko ateratzeko aukera ematen dit, liburu anitza da, hainbat gai daude: aitatasuna, mugaldekotasuna, kultur aniztasuna, nire ibilbidea, autokritika eta autoezagutza, egunerokotasuna... Baina ezohiko moduan ontzen saiatu naiz, begirada zabalago batez egina dago, eta horrek ematen du literaturaz hitz egiteko aukera, bizitzaz. Liburu txikia da, baina ezpal askoko enbor modura ikusten dut.

"GASTEIZTARRA BAT DA ETA ARABARRA BESTE BAT"

Mundutik mundua hizpide, pasadizo bat: gasteiztar bat joan omen zen New Yorkera 90eko hamarkadan, eta hamar urte lan egin ondoren, amerikar kulturaz aspertuta, "banoa Euskal Herrira" pentsatu zuen. Gasteizera itzuli zen eta hara, Amerika hemen zegoen.

Baina hori ez da soilik Gasteizen gertatu. Azken hogei urteetan, denok badakigu nola aldatu den mundua, bereziki internet dela eta. Areago, hizkuntzen ikaspena hizpide, ni ere aritu naiz hizkuntzak ikasten, ingelesa adibidez, jende askok egin duen bezala, ibilbide akademikoan, hizkuntza eskolan, bidaia batzuk eginez... Alabaina, azken urteetan konturatu naiz ingelesa praktikatzeko, eta ordaindu gabe, kanpotik etorritako jendearekin aukera paregabea dagoela. Dagoeneko lau truke luze egin ditut: bata, Montanako lagun bat da, beste bat Londres ingurukoa, beste bat Nigeriakoa (Lagos ingurukoa), eta beste bat, neska kantondar bat, Txinakoa. Oso interesgarria, ezta? Mugimendu migratorioak

direla eta, badut leiho bat irekia jende horiek ezagutzeko. Era berean, Salburuko eskola publikoan zenbat familia magrehtar daude, seme-alabak beste gauza bat dira. Mundu globalizatu baten ondorioa bizi dugu. Gustatu ahal zaigu gehiago edo gutxiago, hori beste kontu bat da, munduaren parametroak aldatu dira, errealtatea hori da.

Gasteiztarra zara, identitate askotarikoa. Gasteiztar euskaldunak horrelakoak al dira?

Nik dakidan horraino, bai. Soziologiaz ari bagara, Gasteizko populazioa laukoiztu da azken hamarkadatan. Txikitan, eskolan, gure belaunaldikoen artean, gurasoak arabarrak eta gasteiztarrek ez izatea nahiko arrunta zen, oro har ari naiz. Identitatea nahiko partekatua da beraz. Zorionez, oso modu naturalean integratu gara. Identitateen inguruan gorabeherak ere egon dira, noski –penintsulako hegoaldeko etorritakoez ari naiz–, baina horretan sakontzeak luzerako emango luke. Arrasto bat nahi

duenarentzat, nazioarteko migrazioaren aurretik, Aitor González de Langarica Mendizabalen liburua: *La Ciudad Revolucionada. Industrialización, inmigración, urbanización. (Vitoria. 1946-1965)*.

Bereizi behar al dira arabarra eta gasteiztarra?

Bai. Tira, gaur egun halako identitateak bereizten ahal diren neurrian. Biak lotuta daude, noski, baina ez dira gauza bera. Gasteiztarra bat da eta arabarra beste bat; oraindik behintzat. Araba populazio aldetik oso kontzentratua dago Gasteizen, Gipuzkoan eta Bizkaian ez bezala. Laudio, Amurrio, Agurain dira salbuespenak, hurrenez hurren: 20.000, 10.000 eta 5.000 lagun bizi dira herri horietan. Gasteiz Arabako bihotza eta birika da, baina Araba Gasteiz baino askoz gehiago da. Areago, Arabako bazterrak gasteiztar askorentzat ezezagunak dira. Ni oraindik ezagutzen ari naiz.... Araba oso interesgarria da paisaia aldetik, lurralde komunak ditu, Nafarroak bezala. Bizkaiak eta Gipuzkoak ez bezala.

Gasteiz idazle eta sortzaileen hirigunea begitantzen zait. Topikoa al da hori esatea?

Topikoa izatekotan, eraikitzen ari den topikoa da, eta ez litzateke txarra izango. Behin hori lortuta, agian, topikoa desegin beharko genuke. Demagun, baietz! Gasteizen azken urte hauetan hainbat idazle, musikari eta sortzaileen mugimendua dago –kultura esparruaz ari naiz–. "Mundutik mundua" delakoa klabe da hori ulertzeko.

"Araba zazpigarren alaba". Topikoa al da hori ere? Araba ongi paratuta dago gaur egungo Euskal Herrian, ezta?

Ongi litzateke beste euskaldunek Araba nola sumatzen duten jakitea, ez bakarrik kultura alorrean, oro har esan nahi dut, baita gasteiztarrok eta arabarrok nola ikusten dugun gure burua ere. Ukaezinezkoa da, Araban konplexu bat egon da, baina esango nuke, ez badago guztiz aldatuta, aldatzeko bide sendoan ari dela. Zentzu horretan, liburuan ez dago txokkeriarik, ezta gorrotatzen dudana kos-

mopaletismorik ere. Esango nuke arabartasun sano bat sortzen ari dela alde horretatik. Ezaugarri hori interesgarria eta ona da arabarrantzat, eta Euskal Herriko gainerakoentzat ere bai.



Ongi litzateke beste euskaldunek nola sumatzen duten Araba jakitea, baita gasteiztarrok eta arabarrok nola ikusten dugun gure burua ere

Zer espero duzu irakurleen aldetik, edo zer jaso duzu dagoeneko?

Espero dut lan guztiekin bezala, ahal den gehiena irakurria izatea. Momentuz kritika aldetik jaso dudanarekin oso pozik

nago. Ingurutik ailegatu zaidana ere pozgarria da. Talka Arte galerian liburua- ren aurkezpen kurioso bat egin genuen, gauzak kolektibizatze saioa izan zen. Jose Angel Irigarai, Karmele Jaio, Eneko Ugarte eta laurok aritu ginen. Ordu bateko ekitaldia izan zen, oso ondo joan zen jendearen harrera aldetik. Enekok bere lengoia erabili zuen, marrazketa. Pintura eta literatura uztartu genituen. Nik kronika batzuk irakurri nituen. *Modus operandi* hori gero eta gehiago interesatzen zait, estiloak lantzea, literaturan bezala. Funtsezkoa egiten zait modu kolektiboan plazaratzea, ongi sentiarazten nau jendearekin aritzeak. Aurkezpen horretan esan zidaten *voyeur* samarra naizela, behatzailea, begirada dagoela nire izateko moduan. Egunero behatzen duen pertsona eta begirada horretatik elikatzen den norbait. Liburua kronika dela, baina literatura ere badela. Saia-kera dela, baina batzuetan narratzailea ageri dela, eta gainera giro poetikoa antzematen zaiola. Bada, zer erran? Pozten naiz, hori izan baita nire apustua. ●



LIBURUA

Eskuinok ere



MILA EZKER GARBIÑE UBEDA

SUSA, 2009

ARITZ GALARRAGA


Garbiñe Ubedari irakurri dizkiodanak denak egin zaizkit atsegingarriak: *Idea zabaldu tour 95*, Negu Gorriak musika taldeak Europan zehar eginiko bira baten kronika (zeinaren-gandik atera nuen nire banda maiteenaren gaineko artikulu bat idazteko aitzakia); *Hobe isilik*, aitona noiz desagertu zen, nora, galdu ote zen erabat eta benetan ezagutu nahi duen bilobaren eleberria (zeinaz kritika batean esan nuen urte luzetako esperientziarekin ondura zegoela zirudiela); ahaztu gabe, noski, ugari sinatu dituen kazetari lanak.

Mila ezker da atseginez irakurri diodan beste lan bat, azkar esateko, ezkertasanaren hainbat konturi buruzko saiakera. Testu laburrez osatutako saiakera laburra, hunkitzen diena bereziki

populazioaren %10-12 diren ezkerrei –“%10-12 horren bi heren gizonezkoei dagozkie, eta beste herena emakumezkoei”–. Denboran atzera gaitz gisa hartua, errebindikazio moduko bat egiten da hemen, edozein milikeriatatik urrun dena dela –“Nahiz eta ezker jenialak, zintzoki esanda, jenio ezkerak baino askoz ere sarriago aurkitu”–, arteak, kirolak, zientziek kondizio hori nola isplatu duten erakutsiz. Pertsonaia zerrenda ekarrita gainera: Julian Ajuriagerra sendagilea, Ned Flanders dendaria, Martina Navratilova tenista adibide gisa. Joan Inazio Retegi eta Paul Wittgenstein lotzen ditu, luze gabe, eta gogora ekartzen *Esku ezker* bakarrarendako kontzertua: “Konposizio musikal liluragarri bat baino gehiago, zailtasunaren aurrean amo-

re ematen ez duenari, ametsak galtzen ez dituenari eskainitako omenaldia bezalakoxea da”.

Azken batean ez baita bakarrik ezkertasanari buruzko liburua, ez bakarrik “papera trabeska ipini, ukalondoa gorputzetik urrundu, eskumuturra barrualdera bihurritu eta postura guztiz nabarmenean idazten” dutenei buruzkoa. Nola edo hala asimétriko garen guztiok –“unibertsoa bera da asimétriko. Bizitza bera da asimétriko”– plazer hartuko dugu bertan, irakaspen: “eskuinik ez dago ezkerrik gabe eta ezkerrik ere ez eskuinik gabe”. *Mila ezker*, beraz, saiakera atsegin eta gomendagarria, azkar esateko, ezkertasanaren hainbat konturi buruzkoa, eskuinok ere gustura asko irakurtzeko modukoa. ●



© KONTZERTUA

Ivo handia

▬ MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Betidanik izan naiz Ivo Pogorelichen mireslea. Eta, egia esan, ezin dut eman arrazoi konkretu bat miresmen horretarako. Pianojole ona, oso ona da; bere belaunaldikoen artean, nahiz eta onena ez izan, nabarmentzen da. Baina esan behar da musikari berezia dela, ez dela publiko guztien gustukoa, hain bitxia eta askotan zentzugabea da bere jotzeko era. Hala eta guztiz ere, oso *personaia* erakargarria da, eta taula gainean ikus eta entzuten duzunean harrapatu egiten zaitu, dudarik gabe.

Pentsamendu horiek guztiak bueltan nituen buruan Ivo Pogorelich maisuaren azkeneko Gasteizko errezitaldian. Hirurogei urte ditu, eta ez da 80ko hamarkadan pianoaren nazioarteko panoraman iraultza ekarri zuen mutiko hura, guapoa, delikatuia, dotorea. Elkarrizketa askotan aitortu duen bezala, bera ez zen jabetzen bere glamouraz, hori Deutsche Gramophon diskoetxearen promozioa zen. Une honetan, alde batera utzi ditu marketin-kanpaina basati horiek, eta aurkezten da bera den bezalaxe: gizon lasaia, konprometitua eta diskretua.

Gasteizko kontzertua bere bitxikeriaren erakustaldi izugarria izan zen. *Tempi* geldoak eta diseziozko interpretazioak izan ziren ezaugarri nagusiak. Den-dena agerian utzi zuen, motibo bakoitza, azpi-melodia txikiena garbi entzuten ziren bere bertsioetan. Musika biluzia erakutsi zuen.

Hasteko, Mozarten *Adagio si minorrean KV 540* zinez dramatikoak entzun genuen, agian gehiegi. Jarraian, eta gordintasunaren bidea jarraituz, Liszten *Sonata si minorrean S. 178* eskaini zuen. Kontraste izugarriak egin zituen, *pianissimi* delikatuena, eta *fortissimi* gorgarriak, den-dena muturreraino eramanez.

Errezeitaldiaren bigarren zatian, plater interesgarriena aurkeztu zuen. Hain



IVO POGORELICH PIANOJOLEA, GASTEIZKO KONTZERTU HANDIEN XIV. ZIKLOAN.

konplexuak diren Robert Schumannen *Estudio sinfonikoak, op. 13*, hil ondorengo bariazioak barne, oso bereziak iritsi zitzaizkigun. Hasi zen hil ondorengo estudioekin, oso mistikoak, eta hasiera hori nahiko arraroa egin zitzaigun. Baina obraren gorputzaren bertsioa benetan dotore eta sakona izan zen. Salbatu zituen zailta-

**MOZART, LISZT EA
SCHUMANNEN OBRAK**

IVO POGORELICH

GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIA,
MAIATZAREN 23A

sun teknikoak –sufirimenduz, esan behar da–, eta ikuspegi orkestrala eman zion interpretazioari. Hori bai, jasan zituen Pogorelich gaixoak ez tulak, karameloak, mobilak... Pena da, baina halakoxea da gure publikoa. Bis gisa, Sibeliusen *Bals tritea*-ren pianorako moldaketa jo zuen. Maitemindu egin ginen berriz ere. ●



Sirena kantak, erraldoien hirian

 IRATI MAJUELO

Kantu eta hitza: Formatu txikiko kontzertuak Erraldioen Txokoa, dio Iruñeko Udaleko zikloaren afixak. Edo nola hurbildu artista erraldoiak entzuleongana. Ez dakit inoiz izan zaretan Erraldioen Txokoko patioan, baina arrainontzi batean sartzea bezalakoa da. Kristalezko kaiola bat patio ireki baten barruan, arrainontzi bat negutegi efektuarekin. Eta gu, koloretako arrainak harrizko eskultura erraldoien begiradapean.

Eta hala iritsi zen Olatz Salvador, erraldioen artetik eszenatokiaren erdira, banda bidelagun. Gitarraren atzean babestuta, bere ahotsaren alderdirik goxoen hartu zuen hasierako ezkutu gisa. Sirena kantuak ziren arrainontziaren barruan. Eta entzuleok lelotuta, arrainontziaren barnean zuzen eta ordenaturik jarritako aulkietan geldi, zer egin jakin gabe: txalo, irribarre, dantza. Batzuetan halakoak izaten gara eta, mari nel itsutu, erreakzionatzeko ezgai.

Bere lehen diskoa delikatua eta detaile askokoa dela esan du Salvadorrek zenbait elkarrizketatan. Baina oh, sirena kantuek beti dute zerbait engainagarri. Eta berak ere badaki, goxotasuna ongi dagoela baina ez zaiola aski, eta bere ahotsak delikatutik adina duela *kañerotik*. Beraz, ezkutuan zituenak atera zituen laster, gitarra alde batera utzi eta batetik bestera dantzan, oholtza bere eginez. Mikroa eskuan hartuta, orain serio, orain irribarrez zuzentzen zitzaion itzalpean egonagatik proiektua sostengatzen dion bandari eta kontzertua sostengatzen genion iruindar kuadrillari.

Eta horrela aurkeztu zizkigun Salvadorrek *Zintzilik* diskoko abestiak, konposizio intimoetatik publikoaren bizitzetan zeharkatzera iritsi direnak, eta gustuz eskaini zizkigun ere kontzerturako aukeraturiko bertsioak, baita kantu berri eta ez-hain-berri bat ere. Argi utzi zuen ez duela maite bere musika erraz sailka dezaten, eta bere alderdi

OLATZ SALVADOR ETA BASERRIKO UZTA

Hurrengo emanaldiak:

Ekaina: 15ean Anuntzetan eta 16an Tolosan.

Uztaila: 11n Bilbao BBK Live-n.



asko konpartitzeko gogoz dagoela: goxotasuna zein indarra, popetik rapera hurbiltzen diren kantuak, ukitu elektronikoak dituzten abestiak eta gitarra soilez lagundutako letrak, agudo inpossibleetatik nota grabeetaraino, trantsizio guztiak.

Eta eszenatokian hori guztia gertatu bitartean, koloretako arrainak zer? Galdetuko duzue, non geunden, aulkien gainean igo eta Olatz eta bandarekin batera dantzan hasi ote ginen, arrainontzian hurakanik sortu ote genuen. Saiatu ziren benetan, eta behin eta berri esan (eskatu!) arren aulkien ilarrak hauts genitzakeela, alde batera utzi eta dantzan hasteko, dezepzio handiz esan beharra dut ezetz. Arrain leloak izaten jarraitu genuen, sirena kanten naufrago, erraldoien hirian zibiko. Ea Nafarroara itzultzen zarenean zurekin batera hazten garen oholtzapean. Aulki ordenatu eta eszenatoki alturik gabe, mesedez. ●



Puzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA OIER GUILLANEK, KAZETARI, IDAZLE ETA ANTZERKIGILEAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.




Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

5x5


ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Sasitza. 2. Buruko ileen multzo. 3. Zerbaitetarako garai egoki. 4. Erabat lasterka. 5. Asiako herritar.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.



4	5		7	3				
		7					4	
6				4		7	5	
		3	4			1	2	
	4	9	2	5	1	7	6	
	1	6			8	9		
7	6		5					2
	2				8			
				1	2		3	7

ERRAZA

3	8	7		6				
		5	4	8				
	1			8				
	6				3	5		
		3	6		8	4		
	5	1				8		
				9		7		
		2	1		6			
			5	2	1		3	

ZALAZA

EBAZPENAK

9	8	4	6	1	2	5	3	7
3	2	5	9	4	7	8	1	6
7	6	1	5	8	3	4	9	2
1	4	6	8	9	3	2	7	5
8	6	4	2	7	1	3	5	9
9	7	3	6	5	8	4	2	1
5	7	3	4	9	6	1	2	8
4	1	7	3	8	5	9	6	2
6	2	5	1	4	9	8	3	7
3	9	8	7	2	6	5	1	4

ZALAZA

PUZLEA: "ILUSTRAZIOAK AIPATU GABE GERATZEN DIRA EZINBESTEKOAK DIRA, NIK BESTE TESTU BAT SARBITAN ETA IRUDIAK LIBURUA ULERTZEKO 5XS: 1. SASIA, 2. ADATS, 3. SASOI, 4. ITOKA, 5. ASIAR. HIZKI BERAK: 1. AIZKORRA, 2. MIAZKATU, 3. ITZAINGO, 4. ERLAZIOA, 5. IRITZIAK, 6. BASELIZA.

Julie Wark

KARITATEAREN IRUZURRA SALATZEN



KARITATEAREN AURKA

“Zergatik erabaki genuen Karitatearen aurka liburua idaztea? Ba, karitatea giza eskubideen justu kontrakoa delako. Ideia hori buruan, milioi asko dituztenei eta super-aberatsei buruzko artikulu bat idatzi genuen CounterPunch AEBtako politika eta ikerketa aldizkarian. Hortik abiatuta gaiari buruzko liburu bat idaztera gonbidatu gintuzten”.

“Jendea bere buruarekin ondo sentitzeko balio du karitateak”

Julie Wark (Perth, Australia, 1945) politologoa, antropologoa eta itzultzailea da eta *Contra la caridad. En defensa de la renda bàsica* [Karitatearen aurka. Oinarrizko errentaren alde] (Icaria, 2019) liburua argitaratu berri du Daniel Raventósekin batera. Berdintasunik eza iraunarazten duen karitatearen ordeztu oinarrizko errenta unibertsala aldarrikatzen dute.

 MARIA COLERA INTXAUSTI

 ORIOL CLAVERA

Zer da karitatea?

Bi pertsonaren arteko erlazio-modu bat, berdintasun ezean oinarritua: batek zerbait ematen dio besteari, baina bigarrenak ezin dio lehenari ezer eman eta norabide bakarreko erlazio hierarkikoa sortzen da.

Eta zer ezberdintasun ditu elkartasunarekin konparazioan?

Elkartasunaren bereizgarri nagusia bi aldean arteko parekotasuna da.

Zuen liburuan karitate instituzionalaren atzean dagoen “ontasunaren iruzurra” salatzen duzue. Zer dela eta?

Etimologikoki ingelesez [liburua- ren jatorrizko hizkuntza] “ontasuna” (*kindness*) eta “familia” (*kin*) erro beretik datoz, eta maila bereko pertsonen arteko gertutasuneko erlazio sozial batzuetan oinarritzen ziren bi terminoak. Baina XVII. mendean Ingalaterran Pobrean Legeak onartzearekin batera karitatea instituzionalizatu zen, ontasunetik karitaterako jauzia bultzatuz. Jendeari ikaragarria irudi-

tzen zaio karitatea salatzea, baina fenomeno instituzionalizatua denean, humanitarismoa, filantropia, altruismoa eta *celebrity*-ak tartean sartzen direnean, harreman guztiz desorekatu bat izaten du oinarrian.

Ontasuna posiblea al da egitura bidegabea duen antolakunde sozial eta ekonomiko batean?

Bai, gu espezie soziala baikara. Adibidez, Colin Kaepernick amerikar futboleko jokalaria oso aberatsa da, baina elkartasun-ekimen ugari egiten ditu. Etikarik gabe ezin dugu gizarterik eduki, etikarik gabe ezinezkoa baita kontratu soziala, baina kontratu hori hautsita dago gaur egun, alderdi kuantitatiboa nagusitu zaiolako alderdi kualitatiboari. Beraz, esango nuke ez dela ezinezkoa, baina bai oso zaila, eta ontasuna beti dagoela etikari estuki lotuta.

Humanitarismoa karitate instituzional gisa definitzen duzue liburuan. Zergatik?

Gobernuek kontrolatzen dutelako, Co-



"OINARRIZKO ERRENTA EZARTZEKO TRABAK EZ DIRA EKONOMIKOAK, POLITIKOAK BAIZIK".

Ilin Powelek berak [AEBetako estatu-idazkari ohia] aitortu zuen gobernuen arma bat zela. Aukera ematen dizu herrialdeetan sartzeko, Indonesian tsunamiaren ondoren; Clintonen humanitarismoaren bidez, adibidez, bost izarreko hotelak eraiki dituzte Haitin, eta arropa merkea fabrikatzeko fabrikak. Eta hori esplotazioa da.

Zer funtzio du karitateak nazioarteko ordena kapitalistan?

Batetik, jendeari bere buruarekin ondo sentitzen laguntzen dio, daukagun sistema guztiz suntsigarriaz askorik pentsatzeko betarik eman gabe. Maila globalean, gauza asko estaltzeko balio du. Gurutze Gorriari dirua ematen diotuznean pentsatzen duzu diru horrekin zerbait egingo dutela, baina ez duzu galdeztzen diru hori nora doan: beren kontuan sartzen dute langileek haien erretiro-saria ordaintzeko. Karitate-egoera iraunarazi baino ez dute egiten.

Azken boladan asko hitz egin da Amancio Ortegak ekipamendu medikoa erosteko egindako

dohaintzei buruz. Zer deritzozu?

Bill Gatesek ere antzera jokaten du: eltxoen aurkako sareak banatzen ditu Afrikan eta jende guztiak txalotzen du, baina sare horiek intsektizidan busti behar dira, soluzio garestia pobreentzat. Horren ondoren, askoz merkeagoa da osasun publikoan eta edateko ur garbian inbertitzea. Ez ahaztu, gainera, Gatesek malariari buruzko ikerketaren monopolioa daukala, eta ondorioz eragin-ahalmen ikaragarria Osasunaren Mundu Erakundearen.

Eta zer iruditzen zaizkizu TV3eko edo ETBko Maratoien tankerako ekimenak?

Ez naiz oso zalea. *Celebrity*-en karitatearen modura funtzionatzen dute. Asmo onak daude atzean, baina daukagun gizartea bere horretan iraunarazteko tresna bat dira, arazo larri bati tirita bat jartzeari bezalakoa. Jendeak zerbait egiten ari delako sentsazio faltsua dauka eta hobeto sentitzen da, baina berez sistema iraunarazten ari dira.

Karitatearen ordez, oinarritzko errenta unibertsala proposatzen

duzue berdintasun ezari aurre egiteko errezeta gisa. Nola iruditzen zaizue bideragarria ekoizpen-bitartekoen jabetza ukitu gabe?

Oinarritzko errenta unibertsala zerga bidez finantzatu daiteke. Herritar guztiak kopuru berbera jasoko lukete. Demagun hilean 600 euro, hala pobreek nola aberatsek, baina azken horiek zerga gehiago ordainduko lituzkete. Oinarritzko errenta unibertsalari buruzko ikerketek erakusten dute ez dagoela ongizate-estatua ukitu beharrik, oinarritzko errentak sendotu egiten du.

Kontuan izanik pobrezia eta berdintasunik eza ezinbestekoak direla sistema honi eusteko, nola iruditzen zaizu ezar litekeela oinarritzko errenta unibertsala, sistemaren oinarriak ukitu gabe?

Arrazoi duzu, oinarritzko errenta ezartzeko trabak ez dira ekonomikoak, politikoak baizik. Nola lortu? Gizarte bidezkoagoa lortzeko ekimen guztiei buruz egin daiteke galdera hori, beraz emakumeen, errefuxiatuen, eskolen... egoera hobetzeko borrokatzen den modu berean borrokatu beharra dago oinarritzko errentaren alde ere. ●



Woody Allen Donostian den bitartean haur-parkeetan udaltzain gehiago ariko dira patruilatzen, zer gerta ere



Donostiako Zinemaldian girotutako pelikula errodatuko du Woody Allenek Gipuzkoako hiriburuan eta haren etorrerarako prestatzen ari dira agintariak. Besteak beste, neurri bereziak iragarri ditu Udalak, "hiriko haur guztien segurtasuna bermatze aldera": parkeetan udaltzain gehiago jarriko dituzte. Izan ere, ezaguna da Woody Allenek adin txikikoekin duen zaletasuna: bere adopzio-alabarekin ezkondu zen duela 20 urte inguru eta berriki jakin denez, Allenen emazte ohiaren

alabak salatu du zuzendariak zazpi urte zituenean sexu-abusuak egin zizkiola. "Tira, egia da gure Woody ez dela guztiz politikoki zuzena, baina Donostiarentzat albiste ezinhobea da gurean pelikula bat grabatzea, honek mapan jarriko gaitu", esplikatu du Udaleko ordezkari batek. Ez zaio arrazoirik falta, izan ere, pelikula Donostian egingo dutela jakinarazi bezain laster, Pederastripadvisor.com webguneko lehen posiziora igo da Donostia, Tailandia eta Brasil atzean utziz. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Eguneko platera: elektrodoak saltsan



Euskara Patua



Euskal Herriko eta Venezuelako ikasleentzat selektibitate bateratua proposatu du EH Bilduk

Selektibitate-azterketa berezituak nazio zapalduen genozidio kultural eta linguistikoa sorberritzen dutelakoan, EH Bilduk proposatu du Euskal Herriko eta Venezuelako ikasleek unibertsitatetarako hautapropa berdin-berdinak egitea. Horrek esan nahi du, besteren artean, venezuelarrek erantzun beharko dituztela ganboatar eta oinaztarren arteko gerrari buruzko galderak, eta euskalduneko osatu arawak eta tupi-guarani fami-

lia linguistikoen nork-nori-nork aditz taulak. Aldiz, Corte Inglesetik zuzenean, Iñaki Anasagastik ETBn esan du proposamen "irrigarria" dela eta, izatekotan, Huelva eta Cuenca espainiar probintziekin adostu beharko genukeela selektibitate. "ETBko albistegiak ikustea besterik ez dago errealitate berean bizi garela konturatzeko", esan du. "Oh, wait, hori jada proposatu duela besteren batek? Logikoena da...". ●

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Bizi nahi duen herria!

Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!